

Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Geografia eta Historia



Gida didaktikoa

1. UNITATEA: II. Errepublikaren
aldarrikapena, garapena eta gainbehera

DBH 3 eta 4

Aurkibidea

SARRERA.....	3
HELBURU DIDAKTIKOAK	8
KONPETENTZIAK: FUNTSEZKOAK ETA ESPEZIFIKOAK.....	11
EDUKIAK.....	17
OINARRIZKO JAKINTZAK	18
GAI NAGUSIAK	19
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	29
NOIZ ETA NOLA ERABILI	33
PLANTEAMENDU DIDAKTIKOA	36
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK	41
1. gaia. Primo de Riveraren diktadura garaitik II. Errepublikara	41
2. gaia. II. Errepublika: aldarrikapenaren eguna.....	53
3. gaia. II. Errepublikaren erlijio-erreforma	62
4. gaia. II. Errepublikaren hezkuntza-erreforma	75
5. gaia. Emakumeak II. Errepublikan	87
6. gaia. Gizartearen polarizazioa II. Errepublikan	99
7. gaia. Gerraren hasiera.....	112
ESPAZIOEN ANTOLAKETA	121
DENBORALIZAZIOA	123
MATERIALAREN EGILEAK	124
BIBLIOGRAFIA	125

SARRERA

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak proiektuan (www.ahotsak.eus) bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa: euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa da jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea, ahozko jardunaren bitartez, eta, bidez batez, belaunaldien arteko hurbilketa egitea lehenaldia eta oraina lotuz.


Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan proiektua 2015ean sortu zen, EIMA 2.0 egitasmoari esker (orain EIMA Digitala). DBHko Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako egin genituen lehen proposamen pedagogikoak:



Ondoren, Euskara eta Literatura ikasgaiari heldu genion, eta, 2016tik 2020ra bitartean, DBHko eta Batxilergoko maila guztietarako materiala prestatu genuen:



2021ean, berriz, Balio Etikoak irakasgaiari heldu genion, hasierako lan-lerrora bueltatuta, eta DBH 1erako, DBH 2rako eta DBH 3rako materiala gertatu genuen:



Iaz Lehen Hezkuntzako 6. mailarako prestatu genuen ikasmateriala, Balio Zibiko eta Etikoak ikasgairako, hain zuzen ere:



Orain arteko lanketa guztiak Ahotsak Ikasgelan webgunean daude erabilgarri, euren gida didaktikoekin (proiektuetan, EIMA 2.0 aukeratuta) batera.

Proposamen berria

Geografia eta Historia ikasgaiari heldu diogu honako honetan, LOMLOE legeak ekarritako aldaketak aintzat hartuta. DBHko bigarren ziklorako (3. eta 4. mailetarako) prestatuko dugu ikasmateriala, eta hemen aurkeztutako proposamena material osoaren lehenengo zatia izango da.

Gure proposamena hiru zatiz edo unitatez osatuta egongo da eta Euskal Herriko Ahotsak (www.ahotsak.eus) proiektuaren barruan sortutako Gerrako Ahotsak egitasmoko testigantzez baliatuko gara zati horiek osatzeko. 2024-2025ean, 7 proposamen pedagogikoz osatutako lehenengo zatia aurkeztuko dugu, Geografia eta Historiako “Gizarteak eta lurraldeak” oinarritzko jakintzaren 14. gaia lantzeko. Hiru atal hauek azaltzen dira, zehazki, gai horretan, 3. eta 4. mailetarako:

- Espainiako Bigarren Errepublika: erreformak, horien ondorioak eta gizartearen polarizazioa.
- Ordenamendu arauemaile autonomikoaren sorrera: 1936ko Euskal Autonomia Estatutua.
- 1936ko Gerra Zibila eta diktadura frankista, ondorioak Euskal Herrian.

Gainerako bi zatia ere 14. gaiaren barruan kokatuta egongo dira. Hona hemen gure proposamena jorratuko diren gaiak kontuan hartuta:

1. UNITATEA: II. Errepublikaren aldarrikapena, garapena eta gainbehera

II. Errepublikaren aldarrikapena

- Primo de Riveraren diktadura garaitik II. Errepublikara
- II. Errepublika: aldarrikapenaren eguna

II. Errepublikaren garapena

- II. Errepublikaren erlijio-erreforma
- II. Errepublikaren hezkuntza-erreforma
- Emakumea II. Errepublikan
- Gizartearen polarizazioa II. Errepublikan

1936ko Gerra Zibilaren hasiera I

- Gerraren hasiera

2. UNITATEA: 1936ko Gerra Zibilaren bilakaera

1936ko Gerra Zibilaren hasiera II

- Etxetik ihes egin beharra
- Umeen erbesteratzea

1936ko Gerra Zibila: borroka

- Borroka-guneak eta batailoiak
- Atxilotetak gerra garaian
- Gerrako bonbardaketak

1936ko Gerra Zibila: eguneroko bizitza

- Gerra-garaiko ekonomia
- Gerrako administrazioa

3. UNITATEA: 1936ko Gerra Zibilaren ondorioak

1936ko Gerra Zibilaren ondorioak I

- Gerra ostean etxerik ez
- Eskola gerra ostean
- Euskararen egoera gerra ostean

1936ko Gerra Zibilaren ondorioak II

- Gerra osteko gosea
- Kontrabandoa eta estraperloa

1936ko Gerra Zibilaren ondorioak III

- Fusilamenduak eta zigorrak
- Kartzelak gerra ostean

Zer du berezitik gure ikasmaterialak?

Ahazkotasuna du abiapuntu edukiak jorratzeko garaian. Curriculumean ahazkotasunari garrantzi handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen da ikastetxeetan. Ahazkotasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu. Ahazkotasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita.

Herriaren memoria, **memoria historiko kolektiboa**. Hori da beste ezaugarri bat. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen herritarren ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean: adituena zein herritar xeheena, gazteena zein adinekoena. Hezur-haragizko pertsonak kontatutakoak dira proposamenen ardatza, eta horrek gertutasuna ematen du. Gainera, ikasmaterialak Curriculumaren **euskal dimentsioa** lantzeko balioko du, euskal mundu-ikuskeraren erakusgarri den heinean. Euskara, euskal kultura eta Euskal Herriko historia transmititzean, euskal identitatea ere lantzen da.

"Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin –hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean". (77/2023 Dekretua)

Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen. Baina azken belaunaldietan ez; bizimodua goitik behera aldatu da eta teknologia berrien aroan murgilduta bizi gara. Guk ere **transmisioa** egiteko modu berriak aurkitu behar izan ditugu, **teknologia berriak** erabilia modu erakargarrian.

Hala, batetik, gure aurrekoen bizipenak, adineko jendearenak, ezagutzera ematen ditugu. Izan ere, gizartearen barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera, etab. gizartearen bilakaeraren ondorio dira; nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo gazteen ahotsa ere aintzat hartzea, orain haiek direlako lemazain bihurtu behar dutenak eta ikasleak gazteekin gehiago identifikatzen direlako. **Belaunaldien arteko zubi-lana** egingo dugu. Soka berari tiraka ari gara denok.

Ikasmaterial digitala da gurea, Curriculum aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, ez beste nonbaitetik hartua eta egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen da eta Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber, erabiltzeko erraza da, intuitiboa eta, gainera, mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin ahal izango da bilaketa: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Diseinu erakargarria du. Eta, horrez gain, berdintasuna lantzeko aukera ematen du; berdintasuna aintzat hartu da bai gaiak aukeratzekoan, eta baita proposamen pedagogikoak egiterakoan ere.



Irudian, DBHrako prestatutako fitxetako batzuk

HELBURU DIDAKTIKOAK

Gure ikasmateriala DBHko 3. eta 4. mailako irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta Geografia eta Historia irakasgaiarekin dago lotuta.

EIMA DIGITALA deialdiaren barruan sortuko dugu materiala, Hezkuntza Baliabide Irekiak (HBI) atalerako, eta deialdi horretako baldintzak betetzen ditu. Besteak beste:

- Euskara hutsean sortutako ikasmaterial digitala da (2.1. eta 2.2 artikulua).
- Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (2.4. artikulua).

Proiektu honen helburuetako bat **ahozkotasuna** lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus) proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola curriculumetan (175/2007, 23/2009, 236/2015 eta 77/2023 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta baita ere ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena:

“Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko; gainera, ezinbestekoak dira trebetasun kognitibo-linguistikoak garatzeko eta arlo guztietako ezagutzak eraikitzen laguntzen dute. Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, beharrezkoa da eskolak euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu” (HEZIBERRI 2020: 236/2015 Dekretua)

"Ahozko komunikazioa izan da, historikoki, gutxien landu dena eskola-sisteman. Ahozko komunikazioaren garrantzia nabarmendu beharko da, komunikazio-konpetentzia osoa garatzeko zein ikasgelako elkarreragina errazteko. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoak behartuta, eskolak euskarazko ahozko komunikazioa bultzatu beharko du, euskararen erabilera soziala errazte aldera eta normalizazio-prozesua bultzatze aldera". (77/2023 Dekretua)

Ahazkotasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoen eta gazteen testigantzek. Batetik, hizkera dago: euskararen aberastasuna. Bestetik, kontatzen dutena: historia, iritziak eta jakintzak. Haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak euren kabuz ondorio batzuetara hel daitezten, talde-lanaren laguntzaz. Bide batez, besteen hitzei balioa emateko, denen iritziak entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balio du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez egin dezaten balio dute gure bideoek eta proposatuko ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balio du.

Legezko Xedapenen testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean (77/2023ko Dekretua) jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai funtsezko konpetentziekin eta baita konpetentzia espezifikoekin ere.

Oinarrizko Hezkuntzaren helburua da, haren bi etapen bidez, ahoz eta idatziz adierazteko eta ulertzeko trebetasunak eta trebetasun logikoak eta matematikoak garatzea eta finkatzea, eta ikasleei kulturaren oinarrizko elementuak ematea, haren eremu humanistikoan, zientifiko-teknologikoan, artistikoan eta motorrean. Ikasle guztiek bizi-ohitura osasungarriak, elkarbizitzarako ohiturak eta ikasteko eta lan egiteko ohiturak hartu eta sendotu beharko dituzte, nortasuna erabat garatzen lagunduko dien prestakuntza integrala berma dadin eta, hartara, herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak erabat balia ditzaten eta ondorengo ikasketetan hasteko eta etorkizunean laneratzeko prestatu daitezten.

Oinarrizko Hezkuntzak honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar die ikasleei (77/2023 Dekretua):

- a) Beren betebeharrak ulertzea eta arduraz hartzea, beren eskubideak gainerakoekiko errespetuan ezagutu eta erabiltzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzeko, elkarrizketan aritzea eta, hala, giza eskubideak finkatzea gizarte plural baten balio komun gisa, eta herritartasun demokratikoa baliatzeko prestatzea.

- b) Nork bere burua erregulatzeko, ikasteko eta bakarka nahiz taldean lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea, ikasketak eraginkortasunez egiteko beharrezkoa den baldintza gisa eta norbera garatzeko bitarteko gisa.
- c) Genero-berdintasuna baloratzea eta sexu-, genero-, etnia-, arraza-aniztasuna edo gaitasunen arloko aniztasuna errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko edonolako diskriminazioa dakarten estereotipoak errefusatzeko. Sexu- eta ugalketa-eskubideak ezagutzea eta pertsona oro errespetatuz eta norbera zainduz baliatzea.
- d) Nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan gaitasun afektiboak indartzea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta indarkeria –bereziki, indarkeria matxista eta indarkeria LGBTifobikoa–, edonolako aurreiritziak eta portaera sexistak baztertzea.
- e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarritzko trebetasunak garatzea, ezagutza berriak zentzu kritikoaz lortze aldera. Oinarritzko konpetentzia teknologikoak garatzea eta haien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.
- f) Ezagutza zientifikoa zenbait diziplinatan egituratzen den jakintza integratu gisa hartzea, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetako arazoak identifikatu eta konpontzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.
- g) Beren buruaren gaineko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta espiritu ekintzailea garatzea, baita ikasten, planifikatzen, erabakiak hartzen eta erantzukizunak beren gain hartzen ikasteko gaitasuna ere.
- h) Euskaraz eta gaztelaniaz zuzentasunez ulertzea eta adieraztea, ahoz eta idatziz, eta testu eta mezu konplexuak sortzeko gai izatea.
- i) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan egoki ulertzea eta adieraztea.
- j) Norberaren kulturaren eta historiaren eta euskal kulturaren eta historiaren oinarritzko alderdiak ezagutu, baloratu eta errespetatzea, baita historia orokorra/unibertsala eta ondare artistikoa eta kulturala ere.
- k) Norberaren eta gainerakoen gorputzaren funtzionamendua ezagutzea eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza- eta osasun-ohiturak finkatzea eta ikasleen ohituretan heziketa fisikoa eta kirol-praktika txertatzea, norberaren eta

gizartearen garapena errazte aldera. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutzea eta baloratzea, eta haren aniztasuna.

l) Modu kritikoan baloratzea osasunarekin, kontsumoarekin, zaintzarekin, enpatiarekin eta izaki bizidunenganako (animaliak barne) eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotzen diren gizarte-ohiturak, eta horiek kontserbatzen eta hobetzen laguntzea.

m) Arte-sorkuntza estimatzea eta arte-adierazpenen hizkuntza ulertzea, zenbait adierazpide eta irudikabide erabiliz.

n) Gizateriak dituen eta garapen jasangarrirako helburuetan zehazten diren arazo nagusiez jabetzea.

Irteera-profilaren garrantzia

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, XXI. mendeko erronkekin lotuta eta garapen jasangarrirako helburuak aintzat hartuta, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza prozesuaren zati gisa.

Irteera-profila, etapako helburuekin eta ikasgai bakoitzeko konpetentzia espezifikoekin lotuta dago. Etapa-helburuak gainera, dekretuak finkatzen dituen funtsezko konpetentziekin daude lotuta. Beraz, konpetentzia horiek eskuratzea, helburuen lortzeari lotuta dago (77/2023 Dekretuko 7. artikulua).

KONPETENTZIAK: FUNTSEZKOAK ETA ESPEZIFIKOAK

Funtsezko konpetentziak, ikasleek arrakasta-bermearekin aurrera egin ahal izateko eta bizitzan zehar erronka nagusiei aurre egiteko ezinbestekotzat jotzen diren zereginak dira. Pertsona guztiek behar dituzte errealizazio eta garapen pertsonalerako, bai eta herriartasun aktiboa, gizarteratzea eta enplegua sustatzeko ere.

Oinarrizko Hezkuntzan, dekretuak (77/2023ko Dekretua) 8 funtsezko konpetentzia zehazten ditu:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (HKK)
- Konpetentzia eleaniztuna (KE)
- Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia (STEM)
- Konpetentzia digitala (KD)
- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)**
- **Herritartasunerako konpetentzia (HK)**
- Ekintzailatza-konpetentzia (EK)
- Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia (KAKK)

Funtsezko konpetentziak, ikasleek lortu behar dituzten **deskriptore operatibo** batzuekin zehazten dira. Konpetentzia bakoitzak bereak ditu.

Konpetentzia espezifikoak aldiz, arlo eta ikasgai bakoitzeko oinarrizko jakintza beharrezkoa den jardueretan edo egoeretan ikasleek baliatzen jakin behar duten neurriak dira. Alde batetik funtsezko konpetentziak eta bestetik ikasgaietako oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak lotzeko eta zehazteko elementuak dira.

Geografia eta Historia irakasgaian, 9 dira konpetentzia espezifikoak. Hona hemen bakoitzaren azalpen txiki bat eta bakoitzari lotutako deskriptore operatiboak:

1. Gaur egun garrantzitsuak diren arazo geografiko, historiko eta sozialen inguruan ikertzea, argudiatzea eta hainbat formatuetan produktu propioak egitea.
Deskriptore-operatiboak: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, EK3, KAKK3.
2. Paisaiaren elementuak eta horiek sistema konplexu natural eta antropikoetan duten artikulazioa identifikatzea eta aztertzea.
Deskriptore-operatiboak: KPSII2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.
3. Sistema demokratikoak eta horien oinarrizko legeak eraikitza iritsi arte Historian zehar izan diren antolaketa politiko motak azaltzea.

Deskriptore-operatiboak: HKK5, KE3, HK1, HK2, KAKK1.

4. Ikerketa-proiektuak garatuz eta informazio-iturri fidagarriak erabiliz, denboran zehar gizarte desberdinek izan dituzten erronka nagusiak ezagutzea, gertaerak, kausak eta ondorioak eta azaltzea eta gaur egun konpondu behar dituzten arazoak identifikatzea.

Deskriptore-operatiboak: HKK1, HKK2, STEM3, STEM4, STEM5, KD2, KD3, KPSII3, KPSII5, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

5. Joera demografikoak ulertzea eta deskribatzea, gizartearen bilakaera historikoa ulertzeko eta etorkizunerako alternatiba osasungarriak, jasangarriak, aberasgarriak eta giza duintasunarekiko errespetuzkoak sustatzeko, baita gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa bultzatzeko ere.

Deskriptore-operatiboak: HKK1, HKK2, STEM3, STEM4, STEM5, KD2, KD3, KPSII3, KPSII5, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

6. Historian zehar izandako sistema ekonomikoak eta hauek izan dituzten garapen-prozesuak azaltzea.

Deskriptore-operatiboak: HKK5, KE3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

7. Talde-identitateen jatorri eta kausa historikoak, eta horiek munduaren konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalerako elementu gisa duten eginkizuna ezagutzea, ondare-aberastasuna eta legatu historiko eta kulturala baloratzeko.

Deskriptore-operatiboak: KE3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

8. Egungo kulturaren errealitatea osatu duten prozesu geografikoak, historikoak eta kulturalak ezagutzea eta ulertzea, aniztasunaren aberastasuna aintzat hartuz eta berdintasunaren, inklusioaren eta gutxiengoekiko errespetuaren aldeko mugimenduen ekarpena baloratzuz, diskriminazio mota oro saihesteko.

Deskriptore-operatiboak: HKK5, KE3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

9. Zibilizazioek Historian zehar egin dituzten ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta balioestea, Euskal Herriari eta Espainiari arreta berezia eskainiz.

Deskriptore-operatiboak: HKK2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

Horrela, Geografia eta Historia ikasteak zuzenean lantzen ditu Herritartasunerako Konpetentzia -kultura politikoa, pentsamendu kritikoa eta herritarren parte-hartze aktiboa garatzen laguntzen duelako-; eta Gaitasun Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa —gertaerak erlazionatzen, hausnartzen eta aldaketetara egokitze eta bizitza osoan zehar ikaskuntza kudeatzeko beharrari erreparatzen irakasten du eta.

Kontzientzia eta Adierazpide Kulturalerako Konpetentziaz ere arduratzen da, edozein motatako adierazpen artistiko ezagutzeak bai sentsibiltatea bai Ondare Historiko-Artistikoa aintzat hartzea, errespetatzea, balioestea eta hartaz gozatzea gauzatzen dituelako.

Zeharka, diziplina honek Ekintzailtza Konpetentzia ere garatzen du; izan ere, ikasleei laguntzen die bizitzan zehar izango dituzten beharrak, erronkak eta aukerak onartzen, gaur egun globalizatuta dagoen eta etengabe aldaketak jasaten dituen mundura egokitu ahal izateko. Eta azken hori egiten du Lurra eta bere funtzionamendua ezagutzearen bidez eta gizakiak, iraganean eta gaur egun, dituen erronkak (ekologikoak, ekonomikoak edo sozialak izanik) identifikatuz.

Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentziari eta Konpetentzia Eleaniztunari egiten zaien ekarpena eztaba daezina da, ezinbestekoa baita edozein hizkuntzatan komunikatzea informazioa transmititzeko; eta Konpetentzia Digitala funtsezkoa da gaur egun edozein jakintzagaitan trebatzeko.

Azkenik, Geografia eta Historia jakintzagaiak Matematika, Zientzia, Teknologia eta Ingeniaritzarako Konpetentziak (STEM) garatzen ere laguntzen du, metodo zientifikoak, arrazoiaketa logikoa eta irudikapen matematikoa erabiltzea eskatzen baititu informazioa aztertzean eta problemak ebaztean.

Hona hemen Geografia eta Historiak gehien jorratzen dituen funtsezko konpetentzien azalpena eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osatzean ikasleak jaso eta barneratu behar duena:

1- HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA (HK)

Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta

munduko gertaeren ezagutza eta iraunkortasunarekiko eta munduko herriartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen jasangarrirako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osatzean, ikasleak:

- a. Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herriarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemaileei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa errespetatzen ditu besteei elkarrekin, hainbat testuinguru sozio-instituzionaletan.
- b. Europako integrazio-prozesutik, Euskal Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen jasangarriarekiko eta munduko herriartasuna lortzearekiko konpromisoarekin.
- c. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritzia garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarriketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz.
- d. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.
- e. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.

2- KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOAK (KPSII)

Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nork bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nork bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzeko. Honako hauek ere sartzen dira: ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko gaitasuna; aldaketetara egokitzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; bizikidetzaren aurkako jokabideak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalari laguntzea, nork bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatuz erantzukidetasunaren bidez; etorkizunera bideratutako bizi bat eramateko gai izatea; enpatia adieraztea eta gatazkei heltzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osatzean, ikasleak:

- a. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.
- b. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu.
- c. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu orekatuan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.
- d. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.
- e. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitzeko prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.

EDUKIAK

Geografia eta Historia irakasgaien DBHko 3. eta 4. mailarako zehaztutako edukiekin bat dator gure ikasmateriala.

Hezkuntza-sistemaren xedea, gizarte gero eta askotarikoago eta aldakorrago honetan, herritar sortzaile eta gogotsuak prestatzea da. Alde batetik, honek areagotzen du nerabezaroan irudimena garatzeko gaitasuna sustatzearen beharra, premia berriei egokitzeko. Bestalde, gizarte demokratikoek prestatutako eta kognitiboki emantzipatutako pertsonak behar dituzte, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak.

Geografia eta Historia jakintzagaiak, Lehen Hezkuntzako *Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza* arloko konpetentziak garatzeko prozesuari jarraipena emateaz gain, iragana aztertzeak gaur egungo gizarte-bizitza ulertzeko duen garrantzia definitzen du, egungo munduan zentzua hartzen duten tresna kontzeptualak eskaintzen dizkigulako. Are gehiago, jakintzagaiak gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta jarduera intelektuala ematen dizkigu. Beraz, eztaba da Geografia eta Historia, pentsamendu eta judizio analitiko aserako gaitasuna sustatzen laguntzen duen jakintzagaia dela. Geografiak gure habitata, honen indar eta ahuleziekin batera, deskribatzen duen bitartean, Historiak nor garen eta horren zergatiak jakiten laguntzen digu, gertakarien ezagutzatik eta ondorengo gogoetetatik abiatuta. Eta horrek guztiak hausnarketa pertsonaletan oinarritutako baliabideak ematen ditu, informazioa baloratzeko eta alderatzeko eta pentsamendu kritikoa erabiltzeko.

Geografia eta Historia ikasgaiaren oinarritzko jakintzak sekuentziatzeak, eta mailaka banatzeak, diziplinaren ordena kronologikoa errespetatzen du eta, irakaslearen lanarekin batera, gizakien Historia eta Lurra panorama orokor baten kokatzeko gai izango dira ikasleak eta euren irteera-profila osatzen joango dira.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Oinarrizko jakintzak izango dira ikasleak konpetentzia espezifikoak eskuratzera eramango dituztenak, irteera-profil fidagarri bat lortzeko helburua izanda. Horregatik, jakintza horiek ezinbestekoak dira gizakiok denboran zehar mundua ulertzeko izan ditugun moduen transmisio zuzena behar bezala egin ahal izateko. Era berean, ikasleak bereganatu beharko du planetan gertatzen diren aldaketa asko gizakiaren eraginez sortuak direla. Horregatik, ezinezkoa litzateke errealitatea aztertzea, etengabeko aldaketa hautematea ere, gutxieneko datu geografiko eta historiko batzuk ezagutu gabe; zehatzak eta pedagogikoki antolatuak direnak, eta bilakaera horiek guztiak erakusten dizkigutenak.

Geografia eta Historia ikasgai oinarrizko jakintzak 2 multzotan banatzen dira eta bi zikloetan ematen da, zeharkako hirugarren irakasgai batekin batera:

- 1. Egungo Munduaren Erronkak:** Geografia Fisikoaren, Giza Geografiaren eta Geografia Ekonomikoaren ezagutzarekin bat datorrena.
- 2. Gizarteak eta Lurraldeak:** Historiari dagozkion oinarrizko jakintzak.
- 3. Gizabidezko Konpromisoa:** aurrekoen eduki zehatzak egungo errealitatearekin lotzen dituen zeharkako multzoa.

Lehenengo bi multzoen barruan, jakintza batzuk zeharka ere tratatu beharko dira eta, ondorioz, ikaste-egoera guztietan landu beharko dira. Gainerakoak jakintzagaiari dagozkion jakintza espezifikoak dira eta adierazitako moduan jorratu ahal izango dira (paisaiaren, klimaren, politikaren, gizartearen, erlijioaren, kulturaren eta abarren erlazioetatik abiatuta) edo ikaste-egoerak pedagogikoki antolatzeko helburuarekin konbinatuta, adibidez, etapa historikoen arabera edo irakasle-taldeak egokiagotzat jotzen duen moduan.

Geografia eta Historia jakintzagaiaren erronka nagusia da, baliabide horien bitartez, irakasleak, jakintzaren jabe izanik, gida gisa balio izatea ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen, eta figura pasibo eta ezagutza-hartzaile soil izateari utz diezaieten. Jakintza aztertu, aplikatu eta sortzeko irakaskuntza eta informazioa ezagutza bihurtzea uztartu behar ditugu, horrela jakin-mina, pentsamendu kritikoa, autonomia eta, ondorioz, erresilientzia sustatuz. Lotura hori gabe, ez da motibaziorik egongo eta gauzak ezingo dira ikuspegi berrietatik landu.

Gure proposamena “Gizarteak eta Lurraldeak” multzoaren barruan kokatuko da, hau da, Historiari dagozkion oinarritzko jakintzen barruan. DBHko 3. eta 4. mailatan 22 atal jorratzen dira multzo horren barruan eta, 14. gaia landuko dugu:

14- Espainiako Bigarren Errepublika: erreformak, horien ondorioak eta gizartearen polarizazioa. Ordenamendu arauemaile autonomikoaren sorrera: 1936ko Euskal Autonomia Estatutua. 1936ko Gerra Zibila eta diktadura frankista, ondorioak Euskal Herrian. (07/2023 DEKRETUA)

Gaiaren barruan azpigai ezberdinak daudenez, proposamen honetan *II. Errepublika* eta *1936ko Gerra Zibilaren hasiera* hartuko ditugu aintzat. Horretarako, zazpi fitxa pedagogiko prestatuko ditugu DBHko 3. eta 4. mailetarako, betiere herriarren testigantzak oinarri hartuta. Proposamen horiek **hiru multzo nagusitan** banatuta egongo dira, eta atal bakoitzak bere **fitxa didaktikoak** izango ditu.

GAI NAGUSIAK

A. II. ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENA

Euskal Herrian II. Errepublika aldarrikatu aurreko giroa nolakoa zen jorratuko da atal honetan, eta Errepublika nola eta noiz aldarrikatu zen aztertuko dute ikasleek. II. Errepublikak garaiko gizartean eta politikan sortutako aldaketak ezagutzeko abiapuntua ere izango da: Zer izan zen II. Errepublika? Zein izan zen gobernu aldaketa nagusia eta zergatik? Nola bizi izan zuten gure aurrekoek aldarrikapenaren eguna? Ikasleek euren herrian gertaera hauek nola bizi izan ziren ezagutu ahal izango dute.



Primo de Riveraren
diktadura garaitik
II. Errepublikara

Gaiak:

- Primo de Riveraren diktadura garaitik II Errepublikara
- II. Errepublika: aldarrikapenaren eguna

B. II. ERREPUBLIKAREN GARAPENA

II. Errepublikak hainbat erreforma erlijioso, politiko eta sozial ekarri zituen, aurreko gobernuarekin alderatuta. Gizartea libreagoa bihurtu zen, Elizarekiko horrenbesteko loturarik gabe, eta hezkuntza unibertsala bilakatu zen herritar guztientzat. Politikan, mugimendu ezberdinak modu askean biltzen hasi ziren, eta horrek ideologia berriak piztea ekarri zuen, eta gizartearen polarizazioa sortzea. Gai honetan, Elizaren barruan eta hezkuntzan egin ziren erreformetako batzuk, emakumeak lortu zituen eskubideak eta rol-aldaketa eta II. Errepublikaren garaian gizartearen polarizazioa nolakoa izan zen jorratuko dute ikasleek, 1936ko Gerra Zibilaren hasieraren testuingurua ulertu dezaten.



**II. Errepublikaren
hezkuntza-erreforma**

Gaiak:

- II. Errepublikaren erlijio-erreforma
- II. Errepublikaren hezkuntza-erreforma
- Emakumea II. Errepublikan
- Gizartearen polarizazioa II. Errepublikan

C. 1936KO GERRA ZIBILAREN HASIERA

Gai honetan, 1936ko Gerra Zibilaren hasierako egunak nolakoak izan ziren ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, garai hura zuzenean bizi izan zutenen ahotik. II. Errepublikak eragindako gizartearen polarizazioak eta horren ondorioz sortutako gatazkek nazionalen estatu-kolpea ematea ekarri zuten. Atal honetarako prestatuko ditugun bideoetan, gertaera horiek zuzenean bizi izan zituztenen testigantzak batuko ditugu, gerra hasi aurretik egoera nolakoa zen ulertzeko eta lehen egun haiek nola bizi izan zituzten jakiteko: herrian eta etxean zer entzuten zen, gerraren hasieraren berri nola jakin zuten, tropak nola iritsi ziren, mutil gazteak nola eramaten zituzten frontera, beldurra eta ihes egin beharra...



Gerraren hasiera

Gaiak:

- Gerraren hasiera

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, eta bakoitzarekin zer landu daitekeen:

Primo de Riveraren diktadura garaitik II. Errepublikara (II. Errepublikaren aldarrikapena)

II. Errepublikaren aldarrikapena ulertzeko, aurreko etapa ulertu beharra dago. 1923ko irailean, Primo de Riverak estatu-kolpe militar bat eman zuen, eta militarrez osaturiko gobernu bat ezarri zuen, bera buru zela. Diktadura trantsizio-aldi bat bezala ulertzen zen, hau da, ordura arte zeuden arazo politiko eta sozialak konpontzeko parentesi bat bezala. Hainbat arazo bideratu ziren, eta esan daiteke aldi nahiko baketsua bizi izan zela¹. 1925ean, Espainiak Marokoko gerra irabazi zuenean, Primo de Riverak boterean jarraitzea erabaki zuen eta diktadura instituzionalizatu zuen, Alfonso XIII.a erregearen oniritziarekin eta babesarekin. Horrela, diktadura eta monarkia lotuta gelditu ziren.

1928tik aurrera, ordea, hasieran Primo de Rivera babestu zuten asko (intelektualak eta ikasleak batez ere) haren aurka jarri ziren, eta manifestazio eta liskar ugari sortu ziren. Haren osasun-arazoen eta 1929ko munduko krisi ekonomikoak izan zituen eraginen ondorioz, Primo de Riverak 1930eko urtarrilean dimititu zuen. Erregeak Damaso Berenguer militarra jarri zuen boterean, 1923 urtearen aurreko egoera konstituzionala berreskuratzeko helburuarekin. Baina jendea ez zegoen konforme: alde batetik, errepublikazaleek ez zuten monarkiarik nahi, eta, bestetik, monarkikoek ez zuten diktadurarekin lotuta jarraitu nahi². Ondorioz, 1931ko martxoan hauteskundeetara deitu zituen gobernuak, eta errepublikazaleek irabazi zituzten.

Gai honetan, gertaera horietako batzuk zuzenean bizi izan zituzten hainbat pertsonaren testigantzekin osatutako bideo bat prestatuko dugu. Bideoa oinarri izango da ikasleek indibidualki edo taldeka gai honetan gehiago sakontzeko eta gertaera guztiak ezagutzeko.

¹ *La dictadura de primo de Rivera*. UNED [Iturria](#)

² *Dámaso Berenguerren dictablanda*. WIKIPEDIA. [Iturria](#)



Primo de Riveraren
diktadura garaitik
II. Errepublikara

- Landuko diren kontzeptuak: historiografia, estatu-kolpea, diktadura, monarkia, 1876ko Konstituzioa, Marokoko gerra, “dictablanda”, atxikimendu nazionala, gizarte-aldaketa, giza eskubideak, erlijio-askatasuna, gobernu-motak, zientziaren eta arrazoiaren garrantzia, Eliza eta Estatua, gizarte-eredua.

- Ikasleengan lortu nahi diren jarrerak:
 - Balio demokratikoak ezagutzeko gogoia izatea.
 - Justizia soziala bultzatzeko nahia piztea.
 - Gizartea aldatzeko gaitasuna sustatzea.
 - Historia ulertzeko tresnen erabilera ikastea.
 - Gertakarien eta haien ondorioen inguruko jakin-nahia izatea.
 - Gure historia ezagutzeko interesa piztea.
 - Informazio-iturriak bilatzen eta aukeratzen jakitea.
 - Hausnarketa pertsonala garatzea.

II. Errepublika: aldarrikapenaren eguna (II. Errepublikaren aldarrikapena)

1931ko apirilaren 12an hauteskundeak deitu zituen gobernuak eta bi indar nagusi lehiatu ziren: monarkikoak eta errepublikanoak. Bigarren hauek atera ziren garaile hiri eta herri nagusietako udaletan.

II. Errepublika 1931ko apirilaren 14an aldarrikatu zen Espainia osoan ofizialki, baina Eibarren eta Espainiako beste bi herritan ordu batzuk lehenago aldarrikatu zen. Gai honetan, II. Errepublikaren aldarrikapenaren egunaren nondik norakoak azalduko dira, egun hori zuzenean bizi izan zutenen testigantzetan oinarrituta, eta garaiko herritarren pentsaera eta aldaketa-nahia jaso nahian.



- Landuko diren kontzeptuak: historiografia, demokrazia-balioak, errepublikanismoa, sozialismoa, laikotasuna, mugimendu politikoak, gobernu-ereduak, berdintasuna, atxikimendu nazionala, giza eskubideak, ideologia-askatasuna, gizarte-aldaketa, zientzia eta arrazoiaren garrantzia, gizarte-eredua.
- Ikasleengan lortu nahi diren jarrerak:
 - Balio demokratikoak ezagutzeko gogoia izatea.
 - Justizia soziala bultzatzeko nahia piztea.
 - Gizartea aldatzeko gaitasuna sustatzea.
 - Herritartasuna eta herri-nortasuna ulertzea.
 - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea izatea.
 - Gertakarien eta haien ondorioen inguruko jakin-nahia izatea.
 - Gure historia ezagutzeko interesa piztea.
 - Informazio-iturriak bilatzen eta aukeratzen jakitea.
 - Hausnarketa pertsonala garatzea.

II. Errepublikaren erlijio-erreforma (II. Errepublikaren garapena)

II. Errepublikaren gobernu berriak konstituzio berri bat sortu zuen 1931an. Haren helburu nagusia³ demokratikoa izango zen erregimen politikoa indarrean jartzea zen, “askatasuna eta justizia” kontzeptuetan oinarrituta. Emakumearen boto-eskubidea onartu zen eta babes soziala eta kultura indartzeko hainbat erabaki ere hartu ziren.

Hainbat erreforma egin baziren ere, garrantzitsuenetako bat –eta Parlamentuan eztabaida handienak sortu zituenen– Estatuaren eta Elizaren arteko banaketa izan zen. Gobernu errepublikanoaren helburua gizarte sekularra indartzea zen, hau da, Elizaren eragina murriztea. Horretarako, hainbat neurri hartu zituzten: dibortzio-eskubidea onartu zen, kultu askatasuna, erlijiosoak ez ziren ezkontzak onartu ziren, Elizak ordura arte hezkuntzan zuen eskumena debekatu zuten eta Jesusen Konpainia debekatu zuten, besteak beste.

Gai honetan, ikasleek II. Errepublika aldarrikatzean Elizan eman ziren aldaketak ezagutuko dituzte, garai hura zuzenean bizi izan zutenen testigantzetatik abiatuta.



- Landuko diren kontzeptuak: historiografia, genero-diskriminazioa, berdintasuna, elizaren indarra, Eliza eta Estatua, tolerantzia, erlijio-askatasuna, erlijio-aukeraketa, dibortzio-askatasuna, 1931ko Konstituzioa, ideologia-aukeraketa, askatasuna eta gizarte-konpromisoa, justizia soziala, aukeraketa-pertsonala, gizarte-aldaketa, gizarte-eredua.
- Ikasleengan lortu nahi diren jarrerak:
 - Balio demokratikoak ezagutzeko gogoia izatea.
 - Gizartea aldatzeko gaitasuna sustatzea.
 - Erlijio mota ezberdinekiko errespetua izatea.
 - Askatasun pertsonala zer den ulertzea.
 - Gertakarien eta haien ondorioen inguruko jakin-nahia izatea.
 - Gure historia ezagutzeko interesa piztea.
 - Informazio-iturriak bilatzen eta aukeratzen jakitea.
 - Hausnarketa pertsonala garatzea.
 - Gizaki oro errespetuz tratatzea.

³ Bigarren Errepublika 1930-1936: 1931ko konstituzioa. [Iturria](#)

II. Errepublikaren hezkuntza-erreforma (II. Errepublikaren garapena)

II. Errepublikaren beste erreforma garrantzitsu bat hezkuntza-sistemarena izan zen. Erreformaren helburu nagusiak analfabetismoari aurre egitea eta Elizaren eragina murriztea izan ziren, eta, horretarako, neurri jakin batzuk hartu zituzten: eskola berriak eraiki ziren, milaka maisu-maistrarentzat lanpostu berriak sortu ziren, irakasleen soldatak igo ziren, irakasleen formakuntza hobetu zen, Misio Pedagogikoak izeneko proiektua sortu zen landa-mundura kultura zabaltzeko, irakaskuntza mistoa ezarri zen, erlijioa aukerako ikasgai bihurtu zen, hizkuntza koofizialei bultzada eman zitzaien, hezkuntza metodologia berritzaileak bultzatu ziren...⁴

Gai honetan, orduko hurrek eskola-garaiko erreforma nola bizi izan zuten eta aldaketek zer eragin izan zuten ezagutu ahal izango dute ikasleek.



**II. Errepublikaren
hezkuntza-erreforma**

- Landuko diren kontzeptuak: berdintasuna eta aukera-berdintasuna, sekularizazioa eta laikotasuna, euskarazko irakaskuntza, hezkidetza eta pentsamendu kritikoa, irakaskuntzaren demokratizazioa, analfabetismoa, hezkuntza-askatasuna, hezkuntza-metodologia aukeratzeko askatasuna, pentsamendu askea...
- Ikasleengan lortu nahi diren jarrerak:
 - Hezkuntza mota ezberdinak ezagutzeko gogoia izatea.
 - Berdintasunean oinarritutako hezkuntza-sistema orekatu baten garrantziaz jabetzea.
 - Gizaki oro berdintasunez eta errespetuz tratatzea.
 - Ideologia-askatasunaren garrantzia ezagutzea.
 - Hezkuntzaren deszentralizazioa ezagutzea.
 - Gertakarien eta haien ondorioen inguruko jakin-nahia izatea.
 - Gure historia ezagutzeko interesa piztea.
 - Hausnarketa pertsonala eta kritikoa garatzea.
 - Informazio-iturriak bilatzen eta aukeratzen jakitea.

⁴ Hezkuntza-erreforma. II. Errepublika. [Iturria](#)

Emakumea II. Errepublikan. (II. Errepublikaren garapena)

II. Errepublikaren garaian (1931-1939), emakumeen egoera juridiko, sozial eta politikoan aurrerapauso garrantzitsuak eman ziren Espainian. Emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zuten 1931ko konstituzioari esker, hezkuntza eta lan-munduan parte hartzeko aukera zabaldu zitzairen, eta politikagintzan emakume aitzindariak azaldu ziren: aipagarriak dira Clara Campoamor, Victoria Kent edo Margarita Nelken, besteak beste.

Emakume askok eskubide hauek baliatu bazituzten ere, beste askorentzat aldaketa errealak motel iritsi ziren, batez ere landa-eremuetan.

Gai honetan, emakumeek zer rol jokatu zuten II. Errepublikan, zer eskubide aitortu zitzaizkien eta zer aurreiritzi eta traba jasan zituzten aztertuko dute ikasleek; eta gaur egungo genero-berdintasunaren aldeko borrokei buruzko hausnarketa ere egingo dute.



**Emakumeak
II. Errepublikan**

- Landuko diren kontzeptuak: historiografia, emakumeen eskubide zibil eta politikoak, emakumeak politikagintzan eta hezkuntzan, emakumeen parte-hartzea langile-mugimenduetan, matxismoa eta genero-rol tradizionalak, berdintasunerako borrokaren hastapen historikoak Espainian, boto eskubidea eta sufragismoa, feminismoaren lehen olatuak Espainian.
- Ikasleengan lortu nahi diren jarrerak:
 - Emakumeen eskubideen aldeko kontzientzia garatzea.
 - Historia gizonen eta emakumeen ikuspegitik ikusteko gaitasuna.
 - Rol tradizionalak eta aurreiritziak zalantzan jartzeko ausardia izatea.
 - Berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatzea.
 - Emakume aitzindarien lana baloratzea eta ezagutzea.
 - Gaur egungo egoera sozialarekin paralelismoak egiteko gaitasuna garatzea.
 - Hausnarketa kritikoa eta balio demokratikoak garatzea.

Gizartearen polarizazioa II. Errepublikan (II. Errepublikaren garapena)

Espainiako gerra zibilaren aurreko egoera tentsioz betea izan zen, Errepublikak irabazi zuenetik. Politikan, eskuindar eta ezkertiarren arteko gatazkak ugariak ziren eta Errepublikaren erreforma sozial eta erlijiosoek ezinegonareagotu zuten oposizioan. 1933an eskuineko koalizioak irabazi zituen hauteskundeak eta faxismoaren beldurrez, nahiz eta 1933ko hauteskundeetan boterea ezkerreko koalizio batek lortu, 1935ean greba eta manifestazio handiak piztu ziren. 1936an, Frente Popular izeneko ezkerreko koalizioak irabazi zuen, preso asko amnistiatu zituen eta ezkerreko erreformei berriz eutsi nahi izan bazieten ere, Francok altxamendu militarra hasi zuen Marokon eta Espainiako Gerra Zibila hasi zen. Gai honetan, Errepublika garaiko ideologia ezberdinen arteko liskarrak, tirabirak eta eztabaidak azaltzen dituen materiala prestatuko dugu, garai hura zuzenean bizi izan zutenen testigantzetan oinarrituta.



**Gizartearen polarizazioa
II. Errepublikan**

- Landuko diren kontzeptuak: historiografia, pluraltasuna, giza eskubideak, gobernu-ereduak eta gobernu motak, gizarte-aldaketa, manifestatzeko eskubidea, herritartasun kritikoa, militarizazioa, liskarrak politikan, memoria historikoa.
- Ikasleengan lortu nahi diren jarrerak:
 - Liskar politiko eta sozialek gizartean duten eragina ulertzea.
 - Garai bateko ideologia ezberdinen arteko liskarrak ezagutzea, gaur egungoak ulertzeko.
 - Memoria historikoarekiko jakintza eta errespetua jorratzea.
 - Enpatia bultzatzea.
 - Ikaslearen autonomia eta parte-hartzea lantzea.
 - Gertakarien eta haien ondorioen inguruko jakin-nahia izatea.
 - Gure historia ezagutzeko interesa piztea.
 - Informazio-iturriak bilatzen eta aukeratzen jakitea.
 - Hausnarketa pertsonala garatzea.
 - Pentsamendu kritikoa lantzea.
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzea.

Gerraren hasiera (1936ko Gerra Zibilaren hasiera I)

1936ko uztailaren 18an Espainiako armadak Afrikan matxinada bat hasi zuen Errepublikako Gobernuaren aurka. Franco jeneralaren buruzagitzapean, matxinada Espainia penintsulan zabaldu zen, hasieran Andaluzian eta jarraian Extremadura, Aragoi eta Gaztela eta Leonen. Hasiera batean Errepublikako Fronte Popularraren gobernuarekin berehala amaituko zuen altxamendu moduan aurreikusi zena, gerra luze eta odoltsua bilakatu zen, ondorio demografiko, ekonomiko, sozial eta kultural ikaragarriak izango zituen. Alderdi politikoak, sindikatuak, intelektualak... dena desagertu zen.⁵

Gai honetan, gerraren hasiera eta lehenengo egunak nola bizi izan zituzten jorratuko da, gertaerak zuzenean bizi izan zituztenen testigantzekin, eta hau abiapuntu bezala erabiliko da beste hainbat gertakari azaltzeko eta gaian sakontzeko.

Landuko diren kontzeptuak: historiografia, bakea eta indarkeriaren aurkako jarrerak, pluraltasuna, tolerantzia, giza eskubideen urraketa, justizia soziala, gizarte-aldaketa, militarizazioa, ideologia-askatasunaren debekua, herritartasuna, memoria historikoa.



Gerraren hasiera

- Ikasleengan lortu nahi diren jarrerak:
 - Gerra bat zer den ulertzea.
 - Gerra jasaten duten pertsonen azalean jartzea; enpatia lantzea.
 - Memoria historikoarekiko jakintza bultzatzea.
 - Memoria historikoa errespetatzen ikastea.
 - Informazio-iturriak bilatzen eta aukeratzen jakitea.
 - Jakin-mina izatea.
 - Hausnarketa pertsonala eta kritikotasuna lantzea eta garatzea.

⁵ Gerra Zibila 1936-1939. [Iturria](#)

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Legeak (7/2023 DEKRETUA), Ikasleek egindako aurrerapenak baloratzeko, ebaluazio-irizpideak zikloka banatu eta sekuentziatzen ditu.

Hauek izango lirateke ikasgaiarekin lotutako **ebaluazio-irizpide orokorrak**, kasuan-kasuan moldatu beharrekoak:

A) Ikasleen autoebaluazioa. Ikasle bakoitzak zertan ikasi duen, zer ikasi duen eta talde gisa zer ikasi duen zehaztu beharko du. Ikasleek euren autoebaluazioa egiteko, egin ditzakegun galderak:

Edukiari buruz

- Ea gaiak interesa piztu dion.
- Ea gaiari buruz ikasi izanaren sententzia duen: gutxi-zerbait-dezente-asko.

Ikaste-prozesuari buruz

- Ea bideoa eta testigantzak baliagarriak gertatu zaizkion.
- Ea ikaste-prozesua gustukoa eta eraginkorra izan den berarentzat.
- Ea informazioa bilatzeko arazorik izan duen edo erraza gertatu zaion.
- Ea guztira informazio berri asko jaso duen eta hausnartzeko balio izan dion.

Bere komunikaziorako gaitasunei buruz

- Ea iritzia lasaitasunez emateko aukera izan duen ala zailtasunak izan dituen.
- Ea ahozko ekoizpenean lasai sentitu den eta nahi zuena azaltzeko gai izan den.
- Ea pozik dagoen ekoiztutako lanarekin.

Talde-lanari buruz

- Ea talde-lanean eroso sentitu den eta aberasgarria gertatu zaion.
- Ea balioesten duen talde-dinamika ala arazoren bat izan duen.

B) Irakaslearen ebaluazioa. Irakasleak ikasleak ebaluatzeko kontuan hartu behar dituen irizpideak, ikasgaiko konpetentzia espezifikoekin lotutakoak dira:

1. konpetentzia espezifikoarekin lotuta
 - 1.1. Egungo eta iraganeko prozesu eta gertaera historiko, geografiko eta sozialei buruzko informazioa bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, hainbat euskarritan aurkeztuz, eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.
 - 1.2. Aro Garaikideari lotutako gai geografiko-historikoei buruz modu kritikoan argudiatzea, banaka zein taldean, askotariko iturri fidagarriak kontrastatuz eta baloratuz, jakintzagaiaren berezko terminoak eta kontzeptuak egokiro erabiliz.
2. konpetentzia espezifikoarekin lotuta
 - 2.1. Jarduera ekonomikoek eta mugimendu demografikoek lurraldean eta paisaian duten eragina ezagutzea, mundu-mailan, natura-, landa- eta hiri-ingurunea kontserbatzen eta hobetzen laguntzen duten portaerak eta ekintzak identifikatuz.
 - 2.2. Jarduera ekonomikoek eta mugimendu demografikoek gizarteeetan duten eragina aztertzea, baliabideak modu unibertsal, zuzen eta bidezkoan eskuratzen laguntzen duten portaerak eta ekintzak identifikatuz, gaur egungo erronka demografikoak kontuan hartuta.
3. konpetentzia espezifikoarekin lotuta
 - 3.1. Gaiaren ulermena islatzen duten produktuen bidez, aro garaikideko antolaketa politikoaren eredu nagusiak mundu-mailan, estatu-mailan eta tokikoan adieraztea eta azaltzea; eskubide eta askatasun indibidual eta kolektiboak ezartzen lagundu zuten sistemei arreta berezia eskainiz, eta eskubide eta askatasun horiek erabiltzeko garaian atzerakadak izan zituzten aldiei edo egoerei kontrajarrit.
 - 3.2. Aro Garaikidean kontzientzia solidarioa sortu, herriarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatu eta desparekotasuna ezabatzeko lan egin zuten mugimenduak eta arrazoiak antzematea, parte hartzeko eta lan egiteko era guztietako estrategiak erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoarekin lotuta
 - 4.1. Historia Garaikidearen eta egungo antolaketa politiko eta ekonomikoaren ezagutza esanahitsua bereganatzea eta eraikitzea dedukzio-prozesuen eta proiektu edo erronken bidezko lanaren bitartez, landutako gaiak ulertzen direla islatzen duten produktuak prestatuz.
 - 4.2. Aro Garaikideko aldaketa historiko esanguratsuen prozesuak aztertzea, baita gizarteek aurre egindako erronka nagusiak ere, kausak eta ondorioak identifikatuz, jakintzagaiaren berezko termino eta kontzeptu teknikoak erabiliz eta gertaerak sekuentzia kronologikoen bidez erlazionatuz.

5. konpetentzia espezifikoarekin lotuta

- 5.1. Aro Garaikidean zehar portaera demografikoak, horien eboluzioa, izan dituzten aldaketak eta haien zikloak ezagutzea eta interpretatzea, kontzeptu tekniko zehatzak erabiliz eta gaur egun munduan ditugun arazo eta erronka nagusiekin lotuz.
- 5.2. Aro Garaikidean ezagutzen diren bizi-etapen eta bizimoduen ezaugarriak identifikatzea, gaur egungoekin konparatuz, bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak bereiziz, horien ezagutzak eskaintzen duen aberastasuna baloratuz eta gure inguruan eta ingurune hartan osasungarria eta jasangarria denaren arteko distantzia hautemanez

6. konpetentzia espezifikoarekin lotuta

- 6.1. Ekonomiaren garapenaren ideiaren eta horren gizarte-, lurralde- eta ingurumen-ondorioen esanahi historikoaren ezagutza aplikatzea, nazioartean, estatuan eta tokian, agiri ekonomikoen bidez, hazkunde eta atzeraldi erritmoak eta zikloak daudela ulertuz, eta planetaren jasangarritasuna bermatuko duten portaera ekosozialak hartzeko beharra kontuan hartuz.
- 6.2. Aro Garaikideko sistema ekonomikoak eta haien garapen-prozesuak aztertzea eta azaltzea, eta elkarren artean alderatzea, haien arteko erlazioak eta baita nazioartean sortu eta sortzen dituzten gatazkak identifikatuz, eta gizarte-eskubideen garrantziarekin eta oinarritzko baliabideetarako eskubide unibertsalaren behararekin lotuz.

7. konpetentzia espezifikoarekin lotuta

- 7.1. Historia Garaikidean zehar garatu diren kultura- eta politika-prozesuak gaur egunera arte eraiki diren talde-identitateekin lotzea, norberaren eta besteen identitatea osatzen joan diren ezaugarriak ezagutuz eta errespetatuz, eta bakoitzaren esanahi askotarikoak eta kultura unibertsalari egindako ekarpenak aztertuz.
- 7.2. Aro Garaikideko ekarpenak identifikatzea eta azaltzea, ondare historiko, instituzional, artistiko eta kulturala munduko herritarren ondare komun gisa aintzat hartuz eta balioetsiz, eta tokiko, autonomiako, nazioko, Europako eta mundu osoko talde-identitateen oinarritzat onartuz.

8. konpetentzia espezifikoarekin lotuta

- 8.1. Gaur egungo estatu eta hegemonien sorrera eta garapena ezagutzea, Espainiako estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eraketa barne, eta horiek espazioan eta denboran kokatzea, haiek osatu dituzten elementu historiko, kultural, instituzional eta erlijiosoak integratuz, sortutako errealitate multikulturala azalduz eta haien ekarpen garrantzitsuenak identifikatuz.

- 8.2. Jarrera ez-diskriminatzaileak erakustea eta aniztasun soziala eta multikulturala aintzat hartzea, inklusioa, gutxiengo etniko-kulturalen onarpena eta kolaborazioa baloratuz, gizarte-kohesioa bultzatzen duten balio gisa.
 - 8.3. Gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alde argudiatzea, hainbat esparrutan aro garaikidean zehar emakumezko pertsonaia garrantzitsuek egindako ekarpena nabarmenduz eta baloratuz, eta edozein egoeratan generoagatiko edozein jarrera eta portaera diskriminatzailearen aurka jardunez.
9. konpetentzia espezifikoarekin lotuta
- 9.1. Aro Garaikidean zehar, zibilizazioek egindako kultura-, arte-, zientzia- eta pentsamendu-ekarpen aipagarrienak ezagutzea eta azaltzea, eta egungo euskal eta espainiar kulturak garaiko korrante kulturekin lotzea, egungo kulturen erroak nabarmenduz eta beste edozein adierazpen kultural errespetatuz.

NOIZ ETA NOLA ERABILI

(planteamendu didaktikoaren antolaketa eta metodologia)

• *NOIZ erabili*

Geografia eta Historia irakasgaia ematean erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko 3. eta 4. mailan. Irakasleak erabakiko du noiz erabili eta jarduera bakoitzari zenbat denbora eskaini.

• *NOLA erabili*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri; <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera. Asko dira bideo-fitxak, gero eta gehiago. Horregatik, bost ataletan banatuta dagoen bilaketa-sistema bat garatu dugu, bakoitzak interesatzen zaiona errazago aurki dezan:

- Motak
- Mailak
- Gaiak
- Ikasgaiak
- Proiektuak

Erabiltzaileak, bere interesen arabera, laukitxoetan (bakarrean edo nahi bestetan) klik egiteko aukera dauka. Adibidez:

- ☒ “EIMA 2.0 Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” (proiektua)
- ☒ Geografia eta Historia (ikasgaia)
- ☒ II. Errepublika (gaia)

-Motak. Bi motatako bideo-fitxak daude: 1. Fitxa didaktikoak; 2. Kantak eta jolasak. Ikasmaterialekoak, fitxa didaktikoak dira.

-Proiektuak. Hainbat projektutarako prestatutako bideo-fitxak ditugu.

“EIMA 2.0 Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua aukeratuz gero, proiektu horretarako prestatu ditugun lanketa-proposamen guztiak agertuko zaizkigu.

-Ikasgaiak. Ikasgaien zerrendan, nahi duena aukera dezake irakasleak.

-Gaiak. Gaien zerrendan, gai bat aukera dezake irakasleak.



-Mailak. Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere badauka irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria... Adibiderako, ikus fitxa hau: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoak transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan une oro. Ikasmateriala erabilia sortutako ekoizpenak partekatzeko aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

Libreki atzi daitezkeen elementuak (Hezkuntza Baliabide Irekiak) eskainiko ditugu. Internet sareko doako zerbitzuak eta tresnak erabiltzea proposatuko da: edukiak eta baliabideak sarean partekatzeko proposamenak egingo dira eta komunitate birtualetan eta sare sozialetan parte hartzea ere bideratuko da. Multimedia elementuen arteko barne-kohesio egokia izatea bultzatuko da, mezu orokorra ondo ulertu eta bereganatu ahal izateko.

PLANTEAMENDU DIDAKTIKOA

Gure fitxa didaktikoak ez dira Sekuentzia Didaktikoak, baina Sekuentzia Didaktikoen izaera eta metodologia kontuan hartuta prestatuko ditugu (Dolz & Schneuwly 1997); horrenbestez, SDak sortzeko bidea emango dute. Sekuentzia Didaktikoak helburu konkretu eta erreal bati erantzuteko jarduera-multzoak dira. Guk bideoekin lotutako jarduerak proposatuko ditugu eta baita helburu konkretuak ere (ahozko ekoizpenak batik bat, hainbat bitarteko erabiliz eta azken helburuetarako hainbat euskarri erabiliz); eta ebaluazio-irizpideak ere bai. Bidenabar, materiala eta ikaste-prozesua esanguratsuak izatea bermatuko dugu. Irakaslearen esku dago jarduera horiek harikaldtu, gaian sakondu eta egokia iruditzen zaion ekoizpen erreal batekin amaitzea. Gure proposamen didaktikoak irekiak dira, eta irakasleak nahi bezala molda ditzake.

Landuko diren jarduerak egitura kooperatiboak erabiliz gauzatzea proposatuko dugu (Kagan 1999). Ikasten ari diren berdinen arteko interakzioa sustatuko da, benetako ideien elkartrukea eta eztabaida. Adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatuko dira, talde-lanean. Ikasketa kooperatiboaren printzipioak:

- Elkardependentzia positiboa.
- Aurrez aurreko interakzioa.
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.

77/2023 Dekretuan argi esaten da ikasleek beren ikasteko prozesuan eta beren garapen pertsonalean eta sozialean inplikazio aktiboa izan dezaten sustatu behar dela. Beharrezko tresnak eman behar zaizkie konpromiso aktiboa eta autonomia har dezaten bizikidetz demokratikoa artikulatzen duten balio, printzipio eta arauetarako.

Ikaskuntza aktiboa bultzatzea da material honekin lortu nahi dena. Horrenbestez, ikasleek helburu jakin bat lortzeko zerbait sortu beharko dute. Hots, zeregin esanguratsua burutu beharko dute. Horretarako, ikasleen arteko lankidetz bultzatuko da. Motibatzailea eta atsegina izango da: ikasleen adina, testuingurua, interesak, etab. kontuan hartuko dira. Baita ikasleen aniztasuna eta inklusibitatea ere: gaitasun diferentia duten ikasleen beharretara egokitze aukerak emango dira, askotariko errealitateak kontuan hartzeko aukera (irakasleak erabakiko du hori nola egin).

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako zazpi bideo dira. DBH 3 eta DBH 4 mailatan Geografia eta Historiako irakasgaien lantzen diren edukiei erreparatuta osatutako ikus-entzunezko multzoa. Bideo horiek bereziki [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus) dute oinarrian; adin askotako herriarren testigantzak.

Bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira. Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak, argazkiak...

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz fitxako atalak:

A. “Proposamen Pedagogikoa” atala:

Ikasleek garatu beharreko oinarrizko gaitasunekin lotuta egongo dira proposamen pedagogikoak. Ikasleen autonomia, sormena, ikerketa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko estrategiak bultzatuko dituzte. Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin, hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, [Dena aprobetxatzen zen](#) fitxan hauek datoz:

- Garapen iraunkorraren aldeko joera
- Ondasun komunak errespetatu eta zaintzeko ohitura
- Aniztasuna aintzat hartzeko eta era positiboan baloratzeko gogoia
- Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
- Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta **hiru alditan** banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:

- Aurre-ezagutzak aktibatu
- Erreferentziak eman

- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu
- Iragana eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak)
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin (talde-dinamikak).
- **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamaika azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

Testigantza bila. Ahotsak.eus webgunean eta oro har sarean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

Zu zeu elkarriketatzailer. Ikasleek elkarriketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

Hitzaren arrastoan. Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

Gaur egunera begira. Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

Historia egiten. Ikerketa eginez, historiara begiratu, eta gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izatea.

Mundu zabalean. Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

Eman iritzia. Gai horri buruz hausnartzea, nork bere iritzia eraikitzeko.

Ika-mika. Nork bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritzia ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

Bestearen azalean. Besteen azalean jartzea eta egoerak asmatzea, adibidez rol-jokoen bidez enpatia lantzeko.

Sormena lagun. Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak - ilustrazioa, komikia, dantza, abestiak, eskulanak...- *brainstorming* edo ideia ekaitzak, lehiaketak eta festa-giroko jarduerak sustatuz.

Jolasten. Jolasa erabiliko da, eskulanak batez ere, jolastuz ikasteko.

Zineforuma. Film edo dokumental baten bidez, garai edo leku jakin bateko pertsonen azalean jartzea eta banakako zein taldeko hausnarketa bultzatzea.

Irakurketa-kluba. Irakurzaletasuna bultzatzea eta kontatzen den istorioa ikuspuntu ezberdinetatik ulertzeko gaitasuna sustatzea.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkoitasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei haien lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlanak, eztabaida, ozen irakurtzea...). Jarduerak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoiez jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.

- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jarriko ditugu, irakasleak ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak. Grabazioak ikusi ondoren egin daiteke ebaluazioa. Hona hemen adibide bat, "[Santa Ageda Eskoriatzan: nesken parte-hartzea](#)" bideoarekin lotutakoa.

B. Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaian kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: *Ahotsak.eus* webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.
- **Argazkiak.** Ikasmaterialeko proposamenek hala eskatzen dutenean, argazkiak ere jartzen ditugu fitxetan. Adibiderako, ikus [Bertsolaritzaren garapena](#) fitxa.



PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

1. gaia. Primo de Riveraren diktadura garaitik II. Errepublikara (II.

Errepublikaren aldarrikapena) <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/primo-de-riveratik-ii-errepublikara>



Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldia begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Alfontso XIII.aren eta Primo de Riveraren agintaldiak aztertuko ditugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Ba al dakizue nor zen Primo de Rivera?
- Ba al dakizue zer den estatu-kolpe bat? Espainian egon al da estatu-kolperik XX. mendean? Noiz gertatu ziren eta noren eskutik?
- Zer da errepublika bat? Espainia errepublika batean bizi al da?
- Ba al dakizue zer esan nahi duen erbeste ("exilio") hitzak?
- Ba al dakizue nor zen Alfontso XIII.a?

2. Talde txikitan jarrita, gaiak sortzen dizkien inpresio eta emozioak zerrendatuko dituzte ikasleek, eta ondoren arbelean idatzi.

- Nola uste duzue bizi dela jendea diktadura batean?
- "Diktablanda" kontzeptua entzutean, zer datorkizue burura?
- Ezagutzen al duzue Errepublika batean bizi den herrialderik? Zein?
- Gustatuko litzaizueke errepublika batean bizitzea? Zergatik?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib.: "Rifeko gerra", "inperio koloniala", "estatu-kolpea", "1929ko munduko krisia", "diktablanda"...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Ezaguna egin al zaizue bideoan aipatu duten zerbait?
- Entzun al duzue halakorik aurretik? Zer izan da zuentzat deigarriena?
- Ba al zenuten Marokoko gerrari buruzko berririk?
- Ba al zenekiten nor zen Alfontso XIII.a? Eta Primo de Rivera?
- Ba al zenekiten XX. mendeko hamarkada bakar batean, Espainian, monarkia, diktadura eta errepublika gobernuak egon zirela?

3. Alfontso XIII.a 1902tik 1931. urtera arte izan zen Espainiako erregea. Hamasei urterekin lortu zuen boterea eta, adingabea zelarik, bere ama Maria Kristina Habsburgo-Lorrenakoa izan zen erregeordea. Bere amaren erregeordetzan, Espainiako Inperioa amaitu egin zen, Kuba, Puerto Rico, Filipinak eta Guam galdu zituztenean. Espainiak Marokoko iparraldeko zati bat inbaditu zuen orduan.

Hiru izan ziren Alfontso XIII.aren erregealdiaren porrota ulertzeko faktore nagusiak.



Iturria

Lehenengoa, Marokoko edo Rifeko gerra izan zen. 1912. urtean, Espainiak Marokoko zona batzuetan protekturatu bat ezarri zuen, Frantziarekin sinatu zuen akordio baten ondorioz, Rifeko gerraren aurrean babesla lortzeko. Kolonia jatorriz Frantziarena bazen ere, Espainia izan zen milaka eta milaka soldadu bidali zituen Marokora. Gerrak 1911tik 1927ra arte iraun zuen eta, tartean, Annualeko hondamendia bezala ezagutzen den Espainiaren porrot militar larria gertatu zen 1921ean.

Bigarren faktorea 1917ko greba orokorra izan zen. Lehen Mundu Gerran Espaniaren papera neutrala izan bazen ere, mundu osoan sortu zen krisi ekonomikoak eragina izan zuen herrialdean ere. Ondorioz, CNTk eta UGTk 1917an greba mugagabe batera deitu zuten. Greba abuztuaren 9an hasi zuten Valentziako trenbide eta tranbietako langileek, eta herrialdean zehar hedatu zen egun gutxitan. Grebaren eragina hiri industrializatuetan eta meatzaldeetan nabarmendu zen, eta landa eremuetan eragina txikiagoa izan zen. Armadaren bitartez lortu zen greba gelditzea eta horrek langileengan porrot ikaragarria suposatu zuen, ezin izan zutelako sistema politikoa aldatu. Ondorioz, egoera soziala gero eta okerragoa bihurtzen hasi zen kalean eta gobernuaren kontrako mugimenduak areagotu egin ziren.



Iturria



Iturria

Azkenik, Alfontso XIII.aren erregealdiaren porrota ulertzeko, nazionalismoen gorakada hartu behar da kontuan, batez ere Euskal Herrian, Katalunian eta Galizian. Alderdi eta mugimendu abertzaleek gorakada izugarria izan zuten.

Egoera nahasgarri horren ondorioz, 1923ko irailaren 13an, Alfontso XIII.aren onespenearekin (eta berarekin batera Eliza katolikoaren, Armadaren eta kontserbadore gehien onespenearekin), Miguel Primo de Riverak estatu-kolpea jo eta diktadura ezarri zuen.

4. Azken ekoizpena: Azken ekoizpena egiteko lau adibide dituzte hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotatu bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *Testigantza bila.* Bideoan agertzen den hizlarietako batek gai honen inguruan emandako azalpenak (Ahotsak.eus webgunean aurki daitezkeen pasarte osoa) entzun eta irakurriko dugu. Candido Eguren eibartarrak Alfontso XIII.aren erregealdiaren porrota eta Primo de Riveraren diktadura aipatzen ditu, zehazki, pasarte horretan. Ikasleak 5 lagunekoa talde bat batuko dira eta pasarteaz aztertuko dute. Kontatzen dituen gertaerekin ardatz kronologiko bat sortuko dute eta, amaieran, talde guztiek amankomunean jarriko dituzte ardatz guztiak. Horrez gain, talde bakoitzak hitzuna kontatzen duen gertaera zehatz bati buruzko informazioa bilatu beharko du eta gainontzekoei azaldu beharko die, ahoz. Hauek izan daitezke jorratu ditzaketen gertaera edo kontzeptuetako batzuk:

- Manuel Fernandez Silvestre

- Annulgo hondamendia

- Bartzelonako "Aste Tragikoa"

- Picasso espedienteak

- Primo de Riveraren estatu-kolpea

- 1929ko mundu-krisia

Hona hemen Candido Egurenek emandako testigantza, transkribatuta:

- Garaiak aldatzen doaz eta bada momentu bat historia azkartu bezala egiten dena. Hasieratik hasteko, Candido Eguren: Primo de Rivera.
- Bai. Astiro-astiro ekingo detsat. Primo de Riveragandik ez, monarkixatik.
- Monarkiatik.
- 1920tik aurrera agertu ziran problema ekonomikuak eta problema sozialak eta Afrikako gudia.
- Gerra, bai.
- Hor bittartian, 1921-22 bittartian, Erregiak... Militarrek zeguazena han, gerria egittia nahi zeбенak moruen kontra uste dot bat Fernandez Silvestre zala, Silvestre hori akordatzan jata ondo; Fernandez beraren lehelengo abizena zan ez dakit, baiña uste dot Fernandez Silvestre zala, biattzen zetsezen errekauek sartzeko: "Luchar contra ese toro, que es una mona". Eta holako hitz batzuek eta biattzen zetsezen hórreri militarrori. Eta härek zelan eurak asko gehixago irabaztiarren eta euren premixuak hartziarren gerran, gora igotzekuok kategorixan, ba gerrara sartu ziran, baiña haixe emonda Erregiak. Eta hori agertu zan 1923 aurretik Parlamentuan eta herri guztian. Eske eze Annual-en egon zan katastrofian millakak gizonak hil ziran.
- Annual-eko hondamendi izugarria.
- Millaka gizonak hil ziran eta egon ziran manifestaziñuak Espaiña guztian eta Eibarren be bai. Hor dago oindiokan argazki bat Casa del puebluan orduango manifestaziñuak erakusten dittuana. Danak: herri guztia kontra zeguan horren asuntuorren gaiñian. Eta Parlamentuan agertu zan zelan responsabilidadiak zeukazen erregiak. Eta militarrek.



Rifeko gerraren aurkako manifestaldia Eibarren, 1921
(Eibarko Udal Artxiboa)

Orduan momentuan Barzelonako hórrek lurtok, hórrek hiltziok, zeguzen: patronala FAIXa eta CNTiaren kontra. Alkar hiltzen. Mordo bat hil ziran. Mordo bat. Eta zeguan krisis mundiala. Oindiokan ekitzen, ezta? Goratzen. Baiña krisisa ekinda zeguan pixkat.

Erregiak eta militarrek pentsau zezen -hor Parlamentuan formau zan Comision Picasso eta harek gauza asko etara nahi zittuan argittara: zelan Erregiak eta militarrek kulpia zezen Afrikako gerriana, Annualetako asuntzagaittik. Eta jentia jaikitza zeguan, "zelan izan leikian holan!". Eta Parlamentuan aurrera zoian hori, Expediente Picasso-, ikusi zezenian gaizki agertu bihar zirala bai militarrek eta bai Erregia, orduan asmau zezen: aprobetxau zittuen Barzelonako hiltziok, matxinada batzuek; ha aprobetxau; eta gero, gaiñera, aintzamentuetan korrupziño haundixa zeguala eta hórrek garbitzeko diktadura bat bihar zala. Zelan urten leikian militarrek? Korrupziñorik haundiña prezisamente Afrikan zeguan, intendenza militarrian! Bueno. En fin. Halantxik izan zan. Eta jentia pixkat, etorri zanian Primo de Rivera, pixkat toxtotuta geldittu giñazen [...]. Bueno egin zezen hiltze mordo bat: hil zittuen Arlequik eta beste general batek, hil zittuen obrero prinzipalenetakuk, gehixen distingitzen ziranak, eta katastrofe haundixa egin zan Barzelonan. Eta emon zezen golpiori eta han amaittu zan; amaittu alde batera amaittu zan, ezta?

Eta etorri zan Primo de Rivera hori. "Nik daukat pakia, nik daukat lana". Efektibamente, lana emon zezen, eske eze diru fasia zeguan Haziendan Espaiñian, Estaduan. Eta ekin zetsan pantanuk eta bidiak - Carreteras Nacionales- mordo bat [egitten] eta lana egon zan. Pixkat jaikitze bat euki zezen Espaiñiak ekonomikamente. Eta bihargiñak be geldittu giñan, "ene, baiña lana dakagu barren honegaz", "ondo goiazak". Baiña urtiak pasau ziran eta ha geruago eta txarrago zoian. Nik hori ofiziñan ikusten neban. Eske eze guk estranjeruagaz egitten genduan lana eta dolarrak eta markuk eta frankuk erabiltzen genduzen gure kontuetan; eta zelan pezetia porrot egitten zoian.

Eta agertu zan momentu bat krisisa agertu zana. 1929xan egon zan "el crack de Wall Street". Eta 1929xan Primo de Rivera bialdu zeban kalera Erregiak. Zegaittik? Diruak gastau ziranian lanik barik geldittu giñazen. Eta patrono askori entzutzen netsen nik han ofiziñan: "No, etorriko dok Republika bat edo beste zezer, hau bota egin bihar dok, hau monarkia bota egin bihar dok". Hori patrono askori nik entzutzen netsen orduan Eibarren, nik ofiziñan. Ba egin zan: bota zeban. Primo de Riverak euki zeban lehelengo ekiera bat on txamarra, jentia pixkat engaiñau zebana, baiña agertu zan krisisori eta diru ez hori. Eta ostikokadia emon zetsan Primo de Riverari.



Miguel Primo de Rivera

Hori danori Eibarren asko sentitzen zan. Eske eze Eibarren beti ilusiño bat izan izan da fusillak egittekoa, gerrako fusillak egittekoa: Oviedok egitten zebana, parte bat ekarri hona Eibarrera. Oviedon, aurretik, egon ziran eibartar batzuk lanian e! Bueno. Haixe Eibarren, sobre todo Julian Etxeberriak, direktoria izan zanak, Eskola Armerixakua, harek zerabixan bere buruan horixe lanori ekarri bihar zala. Eta Primo de Rivera etorri zan Eibarrera behiñ, eta esaten detsut plazia untzagakua holantxe zeguala, jentez.

- Gainezka?

- Bete-beterik. Aber lan hori ekartzen deskuen Eibarrerako. Eta, ez zeban, hitz txiki bat be ez zeban egiñ hor asuntuaren gaiñian. Eta Eibarko jentia geldittu zan desilusionautal. "Ene, ezer be ez. Lehengo moduan edo txarrago gauaz hamen". Hori bakarrik ez. Eskopeta asuntuan eta pistola asuntuan lege batzuek ipintzen juan zan Monarkixia, estorbatzeko hori saltziori, libre saltziori. Trabak ipintzen jardun zeban. Eta horregaittik be eibartarrak kontra zeguazen horrena. Hórregaittik ez da rarua ez Espaiña guztian, ez Eibarren, sobre todo, ha hillaen 12xan, 1931n ha mobimientua egotia, ha aupadia Republikandiako egotia.

Transkribatzaileak: Eukene Lamariano eta Oier Narbaiza
 Proiektua: Egoibarra - [Eibartarren Ahotan](#)
 Elkarrizketatzailea: Euskadi Irratia



Candido Eguren Zabarte
Eibar, 1906-2002

Aita, Benito Eguren; Angiozarren jaiotakoa, eta okina ogibidez. Ama, Modesta Zabarte; Elorrión jaiotakoa. Bergarako seminarioan merkataritza ikasketak egin zituen. Indalecio Prieto, Toribio Etxebarria eta beste hainbat intelektualen eragin handia izan zuen. Primo de Riveraren diktaduran kartzelara eramán zuten lehenengo komunista eibartarra izan zen. Errepublikaren aldarrikapenean eta ondoren 1934ko urriko iraultzan ere parte-hartze zuzena izan zuen. Gerra-garaian, hainbat eginkizun izan zituen. Beste askoren antzera, Batallón de Trabajadores, kartzela eta erbestea ezagutu zituen. 2002ko otsailean zendu zen Eibarren.

ahotsak.eus

- *Sormena lagur*. Ikasleek Rif-eko gerrari buruzko antzerki bat egingo dute.

Antzezlaná grabatu egingo da, gero guztiek elkarrekin ikusteko eta gaiari buruz hausnartzeko. Ikasleek rol ezberdinak izango dituzte. Adibidez:



Bost eszenatan banatu daiteke gidoia: 1) sarrera eta testuingurua; 2) Espaniako armadaren prestaketa; 3) Rifeko herrixka bateko egoera; 4) borroka, gatazka; 5) ondorioak. Eszena bakoitzak 3-4 minutu iraun dezake.

 **Aktoreak** (14 ikasle)
Marokoko indigenak (6)
Espainiako soldaduak eta ofizialak (6)
Kazetaria edo narratzailea (1)
Bigarren mailako pertsonaiak / eszena osagarriak (1)

 **Zuzendaritza eta grabaketa** (5 ikasle)
Zuzendari nagusia (1)
Grabatzaile nagusia (1)
Audio eta argi-teknikaria (1)
Edizio arduraduna (1)
Script edo eszena laguntzailea (1)

 **Jantziak eta eszenografia** (4 ikasle)
Arropa eta makillaje arduradunak (2)
Eszenografia eta atrezzo arduradunak (2)

1. eszena: Sarrera / Testuingurua

- **Kokapena:** Kazetari bat agertzen da eszenan, gerraren testuingurua azaltzen: "1920ko hamarkadan gaude. Espainiako armada Marokon sartu da, Rif eskualdea kontrolatzeko, baina bertakoek ez dute erraz jarriko..."
- **Pertsonaiak:** Narratzailea.

2. eszena: Espainiako armadaren prestaketa

- **Kokapena:** Espainiako kuartel bat. Ofizialek tropak prestatzen dituzte.
- **Zer gertatzen den:** Espainiako soldadu batzuk zalantzati daude; beste batzuk, baikor. Ofizialak aginduak ematen ditu.
- **Pertsonaiak:** Espainiako ofizialak (1-2), soldaduak (4-5)

3. eszena: Rifeko herrixkan

- **Kokapena:** Rifeko herrixka bat. Bertako biztanleak bilduta daude.
- **Zer gertatzen den:** Indigenek espainiarren presentziaz hitz egiten dute; erresistentziarako deia.
- **Pertsonaiak:** Rifeko biztanleak (5-6), buruzagi indigena (1)

4. eszena: Borroka eta gatazka

- **Kokapena:** Mendia edo frontea. Borrokaren tentsioa adierazten da.
- **Zer gertatzen den:** Borroka. Abstraktua izan daiteke, dantzaren edo argien bidez adierazia.
- **Pertsonaiak:** Espainiako soldaduak eta Rifeko borrokariak

5. eszena: Ondorioak eta gogoeta

- **Kokapena:** Borroka-gune bat, borrokaren ondoren.
- **Zer gertatzen den:** Narratzaileak amaiera azaltzen du: Espainiaren porrota Annualeko hondamendian, galera handiak, eta gatazkaren ondorioak bi herrientzat.
- **Pertsonaiak:** Narratzailea eta bizirik atera diren batzuk (2-3)

- *Ika-mika*, Monarkia baten eta errepublika baten ikuspegi ezberdinak ulertzeko eta gaian gehiago sakontzeko, eztabaida bat proposatzen da.

Ikasleak bi taldetan (edo lautan, asko badira) banatuko dira. Hasi aurretik, komeni da azaltzea zein diren eztabaida formalen ezaugarriak eta halakoetan erabiltzen diren formulak eta testu-antolatzaileak, erabil ditzaten (irakaslearentzat lagungarri gerta daitezke: [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak, eta [beste adibide hau](#)).

Talde bakoitzak defendatu behar duen ikuspuntuaren inguruko ikerketa txiki bat egingo du alde aurretik, eta, horren arabera, eztabaidan erabiliko dituen arrazoiak eta argudioak prestatuko ditu. Eztabaidan, irudiak, kartelak, lemak... erabili ahal

izango dira, betiere talde bakoitzak duen denbora errespetatzen bada. Hona hemen argudioak prestatzeko laguntza bat.




Eztabaida bukatzean, denen artean hausnarketa egingo dute, zenbait galderari erantzunez:

- ✓ Eroso sentitu al zara egokitu zaizun ikuspegia defendatzen?
- ✓ Lana erraztu al dizu aldez aurretik gaiari buruz ikertzeak?
- ✓ Zure ustez, zer ikuspuntu izango zenuke 1920ko hamarkadan bizi izan bazina? Eta gaur egun?
- ✓ Hitz egiten al duzue politikaz lagunen artean? Eta etxean?



- *Eman iritzia.* 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeen ondorioz, Alfontso XIII.ak Espainiatik ihes egitea erabaki zuen. Hauxe izan zen agur-hitzaldia:



Agurra edo manifestua irakurri ondoren, ikasleek edukia aztertuko dute, gako-hitzak identifikatuko dituzte eta garaiko testuinguru historiko eta sozialarekin erlasionatuko. Testu-iruzkin sinple bat egingo dute, paragrafo bakoitzean erregeak esaten duena euren hitzetan eta laburki azalduz, hau da, paragrafo bakoitzaren ideia nagusiak laburbilduz. Lana errazteko, galdera batzuk mahaigaineratu daitezke:

- ✓ Zein da diskurtsoaren ideia nagusia?
- ✓ Zer mezu bidaltzen du erregeak?
- ✓ Bete al zen estatuarentzat nahi zuena?
- ✓ Zer da herriarregandik espero duena?
- ✓ Nola ikusten du bere burua?
- ✓ Espero al zuen erregeak erbestealdi luze bat?
- ✓ Nolakoa izan zen erregearen bizitza erbestealdian?

Lana idatzizkoa eta indibiduala izango bada ere, amaieran hausnarketa saio bat egingo dute elkarrekin, non diskurtsoaren garrantzia eta eragina eztabaidatuko duten.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena, antzezpena eta idatzizko gogoeta egingo dute ikasleek.

2. gaia. **II. Errepublika: aldarrikapenaren eguna** (II. Errepublikaren aldarrikapena) <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/ii-errepublika-alдарrikapen-eguna>




Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. II. Errepublikaren aldarrikapena aztertuko dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Zer da errepublika bat?
- Egon al da errepublikarik Espainian? Zenbat? Noiz?
- Zer suposatu zuen II. Errepublikaren aldarrikapenak?
- Zer gertatu zen ordura arte zegoen botere-ereduarekin?
- Zer gehiago dakizue horri buruz?

2. Talde txikitan jarrita, gaiak sortzen dizkien inpresio eta emozioak zerrendatuko dituzte ikasleek, eta ondoren arbelean idatzi.

- 
- Nola sentitzen dira bideoko hitzunak?
 - Zuei zer sortzen dizue “errepublika” hitzak?
 - Ezagutzen al duzue Errepublika batean bizi den herrialderik? Zein?
 - Ikusten al duzue aukerarik Espainian errepublika berri bat aldarrikatzeko?
 - Gustatuko al litzaizueke errepublika batean bizitzea? Zergatik?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib.: “udal hauteskundeak”, “exilioa”, “abajo el clero”...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- *Nola sentitu zarete bideoa ikustean? Eragin al dizue sentipenik?*
- *Bideoan agertzen diren lekukoak haurrak edo gazteak ziren II. Errepublika aldarrikatu zenean. Lortu al duzue haiek horrela irudikatzea?*
- *Ba al zenekiten Eibarren horrelako gertaera garrantzitsu bat gertatu zela?*
- *Entzun al duzue halakorik zuen herrian?*
- *Zergatik aldarrikatzen zituzten “askatasuna” eta “eliza behera” bezalakoak?*

3. 1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeak egin ziren Espainia osoan. Hiriguneetan errepublikanoek garaipen nabarmena lortu zuten, monarkia zalantzan jarritz. Hala, erregeak erbesteratzea erabaki zuen eta, ondorioz, 1931ko apirilaren 14an, Espainiako hiriburu eta hiri askotan II. Errepublika aldarrikatu zen.

Euskal Herrian ere II. Errepublikaren aldarrikapena ilusioz hartu zuten herritar askok. Hiriburuetan eta herri nagusietan ospakizunak eta ekitaldi jendetsuak egin ziren. Errepublikak ekar zitzakeen aldaketa progresistek (hezkuntza publikoa, emakumeen boto eskubidea, berdintasuna...) herritarren artean itxaropena piztu zuten.

Era berean, sektore abertzale eta autonomisten artean ere interesa piztu zen, izan ere, errepublika garaian Euskal Autonomia Estatutua onartzeko aukera errealagoa ikusten zuten. Hala ere, euskal nazionalisten artean ez zegoen erabateko batasuna errepublikaren inguruan.

1931ko apirilaren 13an, goizeko 6:30etan, **Eibar** (Gipuzkoa) izan zen II. Errepublika aldarrikatu zuen Espainiako lehen hiria. Udaletxeko balkoian bandera errepublikanoa jarri zuten herritarrek, eta egun osoan zehar ospakizunak eta ekitaldiak izan ziren herrian.

Eibarren langile mugimendu sendoa eta kontzientzia politiko handia zegoen eta horrexek eraman zuen, hain zuzen ere, aldarrikapen horretan aitzindari izatera. Espainiaren historiako une sinboliko bihurtu zen, eta Niceto Alcalá Zamoraren

gobernuak "Hiri guziz eredugarri" izendatu zuen Eibar. Hona hemen izendapenaren jatorrizko testua, *La Gaceta de Madrid* egunkarian (122.zenbakia) argitaratua, 1931ko maiatzaren 2an:

GOBIERNO PROVISIONAL DE LA REPUBLICA

PRESIDENCIA

DECRETO

En el movimiento revolucionario nacional, reivindicador de la dignidad, del derecho y de la democracia, que tan venturosamente ha culminado en la proclamación de la República por terminante sufragio popular, rivalizaron en entusiasmo, sacrificio y disciplina la inmensa mayoría de ciudades y pueblos de España. Pero es justo recordar que entre todas las poblaciones hubo dos que destacaron gloriosamente su actuación. Una de ellas Jaca; su pueblo y ejército, unidos en un sentimiento patriótico de singular nobleza, con su epopeya del 12 de Diciembre, hirieron de muerte al poder trágico de la Monarquía y conmovieron la conciencia nacional en su entraña al señalarle con recia incitación la trayectoria ineludible de la ciudadanía, abriendo así decisivamente la vía a la República, cuya gestación quedó sellada con sangre de mártires. La otra ciudad, Eibar, que después del fallo político emitido en el sufragio popular del 12 de Abril, fué la primera en ejecutarlo y proclamar la República, arrojando con suma gallardía los riesgos de esta iniciativa, con lo cual dió el espectácu-

lo de la más despierta y valiente civilidad.

Es homenaje de justicia y tributo de reconocimiento dar una consagración oficial a estos hechos gloriosos, por lo cual el Gobierno de la República decreta:

Artículo único. Se concede como especial y máxima distinción a Jaca y Eibar el título de "Muy Ejemplar Ciudad".

Dado en Madrid a veintinueve de Abril de mil novecientos treinta y uno.



El Presidente del Gobierno provisional de la República.

NICETO ALCALÁ-ZAMORA Y TORRES.



4. **Azken ekoizpena:** Azken ekoizpena egiteko lau adibide dituzte hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *Eman iritzia.* Ikasleek Errepublikari buruzko hausnarketa kritiko bat egin beharko dute, eta beren iritzia modu argian arrazoitu. Idazlanaren izenburua *Errepublika, aukera ala arriskua?* izango da eta bi ikuspegi nagusi lantzeko aukera izango dute, nahiz eta biak ere nahastu daitezkeen.



Idazlanak edo iritzi-artikuluak bi orrialdeko luzera izango du gehienez, eta eskuz idatzi beharko da, txukun eta garbi. Hemen, testua idazteko gomendio batzuk:

1. Argi izan zure iritzia hasieratik.
2. Erabili adibideak eta eguneroko egoerak: Adibidez, askotan ikusten dugu gazteek...
3. Errespetatu beste iritziak: Batzuek pentsatzen dute, baina, nire ustez,...
4. Erabili galderak irakurlea aktibatzeko: Zer egingo zenuke zuk halako egoeran?
5. Ez errepikatu ideia bera hainbat aldiz.
6. Erabili esaldi laburrak eta zuzenak.
7. Erabili lotura-hitzak: "lehenik", "bestalde", "azkenik", "ondorioz".
8. Esaldi indartsu batekin amaitu: Beraz, ez al da garaia aldaketaren alde egiteko?
9. Egin zirriborro bat hasi aurretik.
10. Irakurri ozenki amaitzean. Akatsak eta zentzurik gabeko esaldiak errazago antzemango dituzu.

- *Sormena lagun.* Ikasleek fikziozko argazkiak eta (haien) historiak sortuko dituzte, eta argazki-erakusketa bat antolatuko dute. Helburua lantzen ari diren garaiaren ikuspegi historikoa barneratzea da.

Horretarako, ikasleek Errepublikaren aldarrikapenaren egunetako une garrantzitsuak irudikatuko dituzte, benetako momentuak edo fikziozkoak agertuz. Atrezkoa ikasleek sortuko dute.



Taldeka banatuko dira ikasleak eta bakoitzak fikziozko hiru argazki historiko aterako ditu nahi duen hori adierazteko: kaleko giroa, bandera-aldaketak, erregearen koadroak kentzea, jaialdiak, jendearen aurpegiak, manifestazioak eta aldarriak...

Argazki bakoitzari izenburua jarriko diote eta baita testu txiki bat ere. Adibidez:

“1931ko apirilaren 14an, Eibarko gazte talde batek Errepublikaren bandera jaso zuen. Argazkian, 16 urteko Jonek harro begiratzen du balkoira: aldaketa baten hasiera sentitzen du.”

Argazki guztiak atera ostean, ikastetxeko korridoreetan edo beste leku apropos batean erakutsiko dira argazki guztiak, gainontzeko ikasleek ere ikusteko. Argazki-erakusketarentzat ere izen bat asma dezakete (Adibidez, “Eguna begietatik”, “Aldaketaren eguna”...).

- *Bestearen azalean.* Ikasleek TikTok bat sortuko dute, gertakari historiko bat gaur egungo ikus-entzunezko formatuetan aurkezteko gaitasuna landuz. Ariketa honen helburua Historia garaikideko pasarteak ulertzea eta egungo hizkera eta komunikazio estilora ekartzea da.



Talde txikitan lan egingo dute eta TikTok, Instagram Reels edo bestelako modako aplikazioen estilora, 30-60 segundoko bideo labur bat sortuko dute, Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko gertakari historiko batean oinarrituta. Egungo hizkuntza, musika, etiketak edo efektuak erabil ditzakete, betiere testuinguruarekin koherenteak badira. Tonua serioa edo umoretsua izan daiteke, baina errespetuzkoa.

Hona hemen jorratu daitezkeen eszena batzuk:



Alfontso XIII.a maletak hartuta erbesteratzen da, atzeko soinuan musika dramatikoa edo ironikoa erabilia.

Herritar talde batek errepublikaren bandera jartzen du udaletxeko balkoian.

Jendea kalean ospatzen, dantzan edo abesten ageri da.

“Influencer historiko” batek, errepublikaren aldeko mezua zabaltzen du.

Haur batzuk eskolara heltzen dira eta irakasleak etxera bidaltzen ditu, Errepublika aldarrikatu delako.

Herriko musika banda ateratzen da kalera.

Bideoak ikastetxeko sare sozialetako kanaletan edo webgunean argitaratu daitezke, etiketa bateratuak edota bilaketarako testu txikiak erabiliz ((#TikTokHistorikoa, #DBH4, #Errepublika...))

- *Historia egiten.* 1931ko apirilaren 14an II. Errepublikaren aldarrikapena euren herrian nola bizi izan zen ikertu beharko dute ikasleek.

Talde txikitan banatuko dira eta iturri ezberdinetara jo beharko dute informazio bila: artxiboak, liburutegia, hemeroteka digitalak, familiako edo herriko adinekoen testigantzak, [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus), egunkari zaharrak, argazkiak, kartelak eta dokumentu historikoak... Modu egokian jarri beharko dituzte iturrien erreferentziak:

- ✎ Miren Etxeberria (2023). “II. Errepublika eta gure herria”. Zumaia: Udal Liburutegia.
- ✎ Ahozko testigantza; Jose Mari Agirre. 92 urte. Elgoibar. 2025eko martxoa.
- ✎ www.artxiboa.euskadi.eus. Kontsultatua: 2025/05/10

Lanean hasi aurretik, gelan denen artean adostu ditzakete jorratuko dituzten puntuak eta ikerketarako egitura posiblea. Irakasleak galdera gidari batzuk ere proposatu ditzake.

GALDERA GIDARI POSIBLEAK, ADIBIDERAKO:

- *Nola eta non aldarrikatu zen II. Errepublika zuen herrian?*
- *Zein eragilek parte hartu zuten (Udalak, herritarrek, alderdi politikoe...)?*
- *Zein izan zen herritarren jarrera edo erreakzioa?*
- *Zer aipatu zen egunkarietan horri buruz?*
- *Geratu al da egun horretako oroitzapenik edo aztarna fisikorik herrian?*

Ikasleek ikerketaren emaitza idatziz emango diote irakasleari. Ondoren, talde bakoitzak ahozko aurkezpen bat egingo du gelakideen aurrean.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena, antzezpena eta idatzizko gogoeta egingo dute ikasleek.

3. gaia, II. Errepublikaren erlijio-erreforma (II. Errepublikaren garapena)

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/ii-errepublikaren-erlijio-erreforma>



Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Espainiako II. Errepublikak erlijioaren arloan egin zituen erreformen ondorioetako batzuk aztertuko ditugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Zer uste duzue dela erlijioaren erreforma bat?
- Ba al dakizue zer den estatu laiko bat?
- Zuen ustez, zein da gaur egun Elizaren edo erlijioaren eragina estatuan edo hezkuntzan?
- Ba al dakizue zer den hileta zibil bat? Egiten al dira zuen herrian? Ba al dago horretarako gunere bereziren bat?

- 2.** Talde txikitan jarrita, gaiak sortzen dizkien inpresio eta emozioak zerrendatuko dituzte ikasleek, eta ondoren arbelean idatzi.

- Zer emozio edo pentsamendu sortzen dizkizue erlijioaren eta estatuaren arteko harremanaz hitz egiteak?
- Zer uste duzue gertatzen dela estatua eta erlijioa nahasten direnean? Eman al dezakezue adibideren bat?
- Herrialde guztietan Eliza edo erlijioa berdin tratatzen dela uste al duzue? Zein desberdintasun ezagutzen dituzue (adibidez: Frantzia, AEB, Iran...)?

Bideoa ikusi bitartean

- 1.** Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
- 2.** Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu.
- 3.** Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib.: “sekularizazioa”, “ordena erlijiosoak”, “dibortzioa”, “kanposantu zibila”...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

- 1.** Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
- 2.** Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Zer iritzi duzue bideoan erakutsitako neurriez? Ulergarriak iruditzen al zaizkizue?
- Zuen ustez, estatu batek Elizaren boterea mugatu behar al du? Zergatik?
- Gaur egungo gizartean, ba al dago oraindik tentsiorik erlijioaren eta estatuaren artean? Adibideren bat bururatzen al zaizue?
- Zergatik aldarrikatzen zituzten “askatasuna” eta “eliza behera” bezalako lemak?

3.

Erlijio-konfesio guztiak lege berezi baten mende dauden elkartetzat hartuko dira. Estatuak, eskualdeek, probintziek eta udalerriek ez diete elizei, elkarteei eta erlijio-erakundeei ez mesederik egingo, ez eta laguntza ekonomikorik emango ere.

(1931ko Konstituzioaren 26. art.)

Eliza Katolikoak Espainiako gizartean izan duen papera konstante bat izan da historian zehar eta, ondorioz, antiklerikalismorako joerak etengabe agertu izan dira.

II. Errepublika aurreko garaian ere, elizak indar handia zeukan gizartean eta horrekin bukatzeko, hainbat neurri hartu ziren. Gobernua sortu zenean, neurri batzuk dekretu bidez sartu ziren. Gainontzekoak, 1931ko abenduaren 9ko konstituzioarekin.



Iturria

Gobernuaren helburu nagusia estatua laiko bat sortzea zen eta, horretarako, beharrezkoa zen Estatuaren eta Elizaren arteko banaketa.

Besteak beste, honako hauek izan ziren gizartearen sekularizazioa bultzatzeko hartutako neurriak:

- Jesusen Lagundiaren Ordena desegin zen.
- Erlijioa, irakasgai eta dogma bezala, hezkuntza-sistema publikotik kendu zen.
- Ezkontza zibila eta dibortzioaren legea onartu ziren.
- Kultu-askatasuna ezarri zen.
- Elizari lotutako ondasunak nazionalizatu ziren.

Ezarritako neurriak ez ziren ongi etorriak izan, sektore kontserbadoreetan batez ere, eta gatazkak sortu ziren hasieratik. Manuel Azañaren jarraitzaileentzat (errepublikazale “erradikalak” ere deitutakoak), ezinbestekoa zen Elizaren botere guztia murriztea; izan ere, erreforma sakonen aldekoak ziren. Orduan Errepublikako behin-behineko presidentea zen Niceto Alcalá-Zamora eta haren ingurukoentzat, aldiz, proposatzen ziren neurriak gehiegizkoak ziren.

4. Azken ekoizpena: Azken ekoizpena egiteko lau adibide dituzte hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkari bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *Bestearen azalean.* Ikasleek albiste bana idatziko dute, 1931ko maiatzean eraikuntza erlijiosoen kontra izandako erasoak ardatz hartuta eta garai hartako pertsonaia baten azaletik. Ikaslea ez da kazetaria izango, beraz, baizik eta gertaerak zuzenean bizi izan zituen pertsona.

1931KO MAIATZEKO GERTAERAK

1931ko maiatzaren 10ean, Madrilen manifestazio errepublikazale bat egiten ari zen bitartean, Erregearen aldeko talde batek balkoi batetik ereserki monarkikoa ("Marcha Real") jo eta bandera monarkikoa zintzilikatu zuen. Errepublikaren aldekoek probokazio gisa hartu zuten hori, eta tentsioa piztu zen kaleetan. Gau hartan, komentu eta elizen aurkako lehenengo erasoak gauzatu ziren eta hurrengo 2 egunetan, beste hiri batzuetara zabaldu ziren erasoak (Bartzelona, Malaga, Sevilla, Valentzia...). Elizak, komentuak, ikastetxe erlijiosoak eta liburutegiak izan ziren erasoen jopuntu. Eraikinak suntsitu eta barruko gauzak arpilatzeaz gain, kasu askotan suteen bidez guztia erraustu zuten.



II. Errepublikako lehen gobernuak, Alcalá-Zamora buru zuenak, ez zituen erasoak berehala geldiarazi, nahiz eta barne ministroa zen Miguel Maurak armada erabiltzeko baimena eskatu zuen. Azañak uko egin zion proposamenari, armadaren presentzia herriaren aurka baliatzea saihesteko. Ondorioz, bere esaldi famatua esan zuen:

"Erre daitezkeen eraikin batzuk ez dira bizitza baten truke neurtzen"



Manuel Azaña
(1880 - 1940)

Erabaki horrek kritika gogorrak ekarri zituen eskuinaren eta Elizaren aldetik, eta lehen zatiketak agertu ziren gobernuaren barruan. Erlijioarekiko jarrera desberdinak agerian geratu ziren eta tentsio politikoak areagotu ziren.

EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian ere jazarpen egoerak bizi izan zituzten eliztarrek, baina Espainiako beste leku batzuetan baino gutxiago. Jazarpena batez ere lege bidezkoa izan zen: erlijiosoen ikastetxeak itxi, irakasteko debekua ezarri, Elizaren ondasunak nazionalizatu, erlijiosoen arropa bereizgarriak kalean galarazi...

Euskal Herrian Elizaren kontrako erasoak eta jazarpen fisikoak ez ziren hain nabarmenak izan, katolizismoak indar handia zuelako. Euskal kultura eta nazionalismoa Elizarekin lotuta zeuden ordura arte, euskara eta euskal nortasuna askotan Elizak zaindu eta babesten zituen eta abertzale askok Euskadi eta Eliza uztartzen zituzten (adibidez, EAJ-PNV alderdiak).

Ikasleek hauetako pertsonaia baten rola (edo beraiek aukeratutako besteren batena) aukeratu dezakete:

- **Alkate errepublikazale bat** (adib. Madrilgoa edo Bilbokoa)
- **Apaiz edo fraide bat** (komentu edo parrokiako kidea)
- **Emakume katoliko bat** (hiritar arrunta, eliza bisitatzen duena)
- **Gobernu zibileko ordezkari bat** (agintari bat, istiluak kontrolatzeko ahaleaginean)
- **Gazte errepublikazale bat** (manifestazioetan parte hartzen duena)



Iturria

Albisteak lau puntu izan beharko ditu: izenburua, sarrera, gorputza eta amaiera.

- Izenburua hartzen den ikuspegiarekin lotuta egon daiteke.
- Sarrera: gertaera leku eta momentu zehatzean kokatuko du.
- Gorputza: gertaeraren inguruko azalpenez gain, gertaera horrek pertsonaia nola sentiarazi duen eta bere inguruan zer-nolako ondorioak izan dituen ere azaldu daiteke.
- Amaieran: hausnarketa

Albisteak ilustratzeko, argazki historiko bat ere erabil dezakete, benetakoa edo fikziozkoa, eta egunkari zaharraren itxura ere eman diezaioke.

Azkenik, gelako pareta batean jarriko dituzte testu guztiak, eta, hala, denek izango dute besteen albisteak irakurtzeko eta egin dituzten diseinuak ikusteko aukera.

- *Historia egiten.* Ikasleek ikerketa txiki bat egingo dute, Espainian gertatu ziren jesuiten kanporaketen inguruan (XVIII. mendean, XIX. mendean eta XX. mendean). Helburua da hiru epealdi ezberdinetako kanporaketaren zergatia ulertzea eta hiruren arteko antzekotasunez jabetzea.


JESUSEN LAGUNDIAREN ORDENA

Jesusen Lagundiaren Ordena, edo Jesuitak, Eliza Katolikoaren ordena erlijioso garrantzitsu bat da. Ignazio Loiolakoak sortu zuen 1534. urtean eta ordenaren helburu nagusia Eliza Katolikoa defendatzea eta munduan fede zabaltzea izan da.

Kulturan, hezkuntzan eta misio lanetan nabarmendu dira beti, unibertsitate- eta eskola-sare handiak sortu dituztelako eta herrialde askotan misio katolikoak zabaltzeko. Jesuita asko intelektual ospetsuak izan dira eta ordenaren boterea handia izan da historian zehar. Ondorioz, gobernu batzuek mesfidantzaz ikusi izan dituzte.

Hiru aldiz kanporatu dituzte Espainiatik:

- 1767an, Carlos III.aren erregealdian.
- 1835ean, liberalismoaren garaian.
- 1932an, II. Errepublikan.



Ikasleek garai bakoitzeko testuingurua ikertu beharko dute, momentu horietan Espainian zer gertatzen ari zen ulertzeko. Antzekotasunak eta desberdintasunak taula batean ordenatu ditzakete.

Informazioa
liburutegian eta
Interneteko
webgune
fidagarrietan

Ikerketaren emaitza gehienez hiru orri izango dituen txosten batean jasoko dute. Amaieran, ikertutakoa bateratuko dute, eta jesuiten kanporaketetan errepikatzen diren 2-3 faktore nagusiak arbelean idatziko dituzte.

- *Testigantza bila.* Testigantzak bilatu, eta haien inguruan hausnartzera gonbidatuko ditugu ikasleak.

[Ahotsak.eus](#) webgunean, II. Errepublikak erlijioan izan zuen eraginari buruzko hainbat testigantza aurkitu daitezke: gurutzeak kentzea, eliza erasotzea, kantak, anekdotak... Hona hemen adibide batzuk:

- [“Culto y Credo” ordaindu beharrekoa](#)
- [Errepublika garaian apaizak jazarrita](#)
- [Antiklerikalismoa gerra aurrean](#)
- [Abadeak bandera kendu errepublikazale bati](#)
- [Errepublika garaian amak gurutzeak jarri zizkien](#)
- [Erlijioa errepublika garaian](#)

Binaka edo hirunaka jarrita, bideo-pasarte bat aukeratuko dute [Ahotsak.eus](#) webgunean bilaketa eginda (<https://ahotsak.eus/gaiak/080204/>). II. Errepublikarekin eta erlijioarekin (elizak, komentuk, apaizak, mojak...) izango du zerikusia. Interesgarria da talde bakoitzak bideo-pasarte desberdina aukeratzea. Nola egin? Aukeratu ahala, izenburua arbelean ipintzen joan daitezke, eta ezingo da errepikatu.

Pasartea ikusi, eta iritzi-trukea egingo dute. Ondoren, aurkezpen txiki bat prestatuko dute, gelakideen aurrean azaltzeko, gehienez ere bost minutukoa.



- *Ika-mika.* II. Errepublikan eztabaida sortu zuten hainbat auzi izan ziren, esaterako, Dibortzioaren legearen ingurukoa edo hilerri zibilaren ingurukoa. Ikasleak taldeka jarriko dira eta, garaiko pertsona ezberdinen azalean sartuta, legebiltzar bat antolatuko dute, gisa honetako auziak nola eztabaidatzen ziren jakiteko. Talde bakoitzak bere ikuspegia defendatu beharko du legebiltzarrean.

1932ko II. Errepublikaren erreformak

1931n, Espainian II. Errepublika ezarri zenean, gobernu aurrerakoi eta laiko berriak Eliza Katolikoak gizartearen boterearekin bukatu nahi izan zuen. 1932an, bizitzaren zenbait alor ukitzen zituzten hainbat erreforma bideratu ziren, adibidez, dibortzioaren legea eta hilerri zibilena:

Dibortzioaren legea (1932):

- Dibortzioa legez onartu zen.
- Emakumeei ezkontza hautsi eta berriz bizitza hasteko aukera eman zitzaien.
- Eliza Katolikoak gogor kritikatu zuen, ezkontza sakramentua baita.

Hilerri zibilak:

- Ordura arte, hilerri gehienak Elizaren kontrolpean zeuden.
- Errepublikak **hilerri zibilak** ezarri nahi izan zituen, edozein pertsonak (nahi izanez gero) erritu erlijiosorik gabe lurperatzeko aukera izateko.
- Neurri horrek gizartearen zati handi batean aurkakotasuna piztu zuen.

Helburua da gizarte-aldaketa sakonen aurrean sortzen diren gatazkei buruz hausnartzea eta modu baketsuan iritzia desberdinak mahai gainean jartzea. Gainera, erreformei buruzko ikuspegi ideologiko eta sozial desberdinak aztertzeke aukera ere emango die ariketa honek.

Ikasleak 4-5 laguneko taldeetan banatuko dira, eta talde bakoitzak paper bat aukeratuko du. Ondorengo proposamen hauen artean aukeratu dezakete, edo beste bat(zuk) asmatu:

Errepublikazale laikoak:

- Erreformak defendatzen dituzte eta gizartea modernizatu nahi dute: emakumeek eskubide gehiago izatea, estatua eta erlijioa bereiztea...

Eliza Katolikoaren defendatzaileak (apaizak eta fededunak):

- Dibortzioa eta hilerri zibilak santutasunaren aurkakotzat jotzen dituzte.
- Estatua Elizarekin koherentea izan behar da.

Familia katoliko tradizionala (gurasoak eta seme-alabak):

- Zalantzati daude. Ez dute Eliza haserre arazi nahi, baina, emakumeak dibortziatu egin nahi du.

Emakumeen eskubideen aldeko talde feministak:

- Dibortzioaren aldeko jarrera irmoa: emakumeak ez dira senarraren mendekoak izan behar.
- Hilerri zibila beharrezkoa da erlijio askatasunerako.

Jarduera prestatzeko, ikasleek hausnarketa egingo dute, honako galdera hauek erantzunda:

- Zergatik zen dibortzioa polemikoa 1930eko hamarkadan?
- Zer esan nahi zuen "hilerri zibila" proposatzeak?
- Nola eragiten zieten erreforma hauek emakumeei eta familiei?
- Zer ondorio sozial edo pertsonal izan ditzake zuen jarrerak garaiko Espainian?
- Zer beldur edo arrisku sumatzen dituzue Errepublikaren lege berri hauek onartuz gero?
- Nola erreakzionatuko lukete garaiko beste talde sozial batzuek zuen jarreraren aurrean?

Talde bakoitzak testu labur bat prestatuko du bere rola ulertzeko, eta bere rolari dagozkion argudioak prestatuko ditu:



Ondoren, eztabaida publiko bat egingo dute talde guztiek. Talde bakoitzak 3-4 minutuan hitzaldi txiki bat emango du eta, ondoren, galdera eta erantzunen txanda helduko da. Irakasleak moderatzaile lanak egingo ditu.

Azkenik, bozketa egingo da eta ikasleek banakako botoa emango dute:

- **Legebiltzarrak onartzen al du dibortzio legea?**
- **Legebiltzarrak onartzen al du hilerri zibila?**

Bozka bukatuta, rol ezberdinetan nola sentitu diren komentatuko dute taldean, eta garai hartako gizartearen sakabanaketa ideologikoaz hausnartuko dute.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena, antzezpena edo idatzizko gogoeta egingo dute ikasleek.

4. gaia. II. Errepublikaren hezkuntza-erreforma (II. Errepublikaren garapena)

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/ii-errepublikaren-hezkuntza-erreforma>



Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Espainiako II. Errepublikak hezkuntzan egin zituen erreformen ondorioetako batzuk aztertuko ditugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Haurrak eskolara joaten al ziren XX. mende hasieran?
- Egongo al zen desberdintasunik hirietako eta landa-eremuetako eskolen artean?
- Zer da eskola laiko bat? Nolakoa da zuen eskola?
- Ba al dakizue nor diren Jesuitak?

2. Talde txikitan jarrita, gaiak sortzen dizkien inpresio eta emozioak zerrendatuko dituzte ikasleek, eta ondoren arbelean idatzi.

- Zer emozio edo pentsamendu sortzen dizkizue erlijioaren eta hezkuntzaren arteko harremanaz hitz egiteak?
- Zer uste duzue gertatzen dela hezkuntzaren monopolio handi bat Elizak duenean?
- Sinestunak izanda, nola sentituko zinatekete zuen eskolatik ordura artean zintzilik ikusitako gurutzea kentzeko agindua helduz gero?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib.: “laikoa”, “analfabetoa”, “alfabetizazioa”, “Irakaskuntza Askea”, “koedukazioa” edo “hezkidetza”, “pedagogia humanista”..)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Bideoan entzundakoen artean, zerk harritu zaituzte gehien? Zergatik?
- Nola baloratzen duzue II. Errepublikaren gizartearen alfabetatze-ekintza handia?
- Ba al du zerikusirik gaur egungo hezkuntza-sistemeekin bideoan kontatzen denak?
- Zein da zuen ustez hezkuntza laikoaren eta erlijio-irakaskuntzaren arteko oreka egokia?
- Gaur egun ba al dago gatazkarik hezkuntza-sistema laikoaren eta erlijiosoaren artean? Adibidez, gobernuaren diru-laguntzak lortzeko orduan?

3.

- Kulturaren zerbitzua Estatuaren funtsezko eskumena da [...]
- Lehen hezkuntza doakoa eta nahitaezkoa izango da.
- Irakaskuntza ofizialeko maisu-maistrak, irakasleak eta katedradunak funtzionario publikoak dira. Katedra-askatasuna aitortuta eta bermatuta dago.
- Errepublikak legeak egingo ditu, ekonomikoki premian dauden espainiarrei irakaskuntza-maila guztietarako sarbidea errazteko [...].
- Irakaskuntza laikoa izango da [...].
- Elizei aitortzen zaie beren dotrinak beren establezimenduetan irakasteko eskubidea.

(1931ko Konstituzioaren 48. art.)



Espainiako II. Errepublikaren gobernuak hezkuntza-sistema sakonki eraldatzeko ahalegin handia egin zuen, analfabetismoari aurre egin eta gizarte bidezkoagoa eta modernoagoa sortzeko. Helburu nagusia estatu laikoaren eta eskola publiko, doako eta unibertsalaren aldeko sistema ezartzea izan zen, Elizaren eragina murriztuz.



Erreforma garrantzitsuenen artean, honakoak nabarmentzen dira: eskola publikoen sare zabal bat sortzea (100.000 irakasle berri trebatzeko plana abiarazi zen eta milaka eskola eraiki ziren, horietako asko landa-eremuetan), irakaskuntzan emakumeen rola handitzea, eta hezkuntza mistoa eta derrigorrezkoa 12 urtera arte ezartzea. Gainera, Eliza Katolikoaren kontrolpeko eskola pribatuak murrizteko legeak ezarri ziren, eta erlijioaren irakaskuntza eskolatik kanpo utzi zen.



Iturria



Iturria

Erreforma hauek gizartean eragin handia izan zuten. Alde batetik, sektore aurrerakoi eta langileek positiboki hartu zituzten neurriak, herriaren heziketa hobetzeko pauso gisa. Bestetik, Eliza Katolikoa eta eskuin muturreko taldeak gogor agertu ziren, neurriak antikristautzat eta tradizioaren aurkakotzat jota. Horrek tentsio ideologiko eta sozial handiak eragin zituen, eta polarizazio politikoa areagotu zen.

Gobernuan ere ondorioak nabarmenak izan ziren. Errepublikako lehen gobernu aurrerakoiek hezkuntza-erreformak bultzatu bazituzten ere, 1933ko hauteskundeetan eskuinaren garaipenak politika horien atzerakada ekarri zuen. Horrek, berriz, ezegonkortasun politikoa eta gizarte desadostasunak areagotu zituen, Espainiako Gerra Zibilaren aurrekari bihurtuz.

4. Azken ekoizpena: Azken ekoizpena egiteko lau adibide dituzte hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *Bestearen azalean.* Ikasleek, pertsona analfabeto baten azalean jarrita, idazlan bat egingo dute, euren pentsamenduak agertzeko. Horretarako, lehenengo, ideia batzuk jasotzeko, Ahotsak.eus webgunean analfabetismoari buruz dauden pasarteak bilatu, entzun eta analizatuko dituzte. Hona hemen adibide batzuk:

- [Inocencia Markotegi Razkin, Etxarri-Aranatz](#)
- [Angel Nabea Arriola, Gernika-Lumo](#)
- [Valentina Ugalde Ugalde, Hernani](#)



ANALFABETISMOA ESPAINIAN ETA EUSKAL HERRIAN, 1930ean

XX. mendearen hasieran, Espainian analfabetismoa oso zabaldua zegoen, batez ere herrietan eta landa-eremuetan. Hiri handietan maila pixka bat hobea bazen ere, landa-inguruneetako analfabetismoak pisu handia zuen gizarte osoan. Arrazoi nagusiak hezkuntza-sistemaren gabeziak eta landa-lanetarako haurren eskulanaren beharra ziren, bereziki. Emakumeen artean, gainera, analfabetismoa altuagoa izaten zen.

1930eko zentsuaren arabera, Espainiako % 42,35 analfabetoa zen, hau da, ez zekien ez irakurtzen ezta idazten ere. Gainera, horietatik % 37 gizonezkoak ziren eta % 63 emakumezkoak. Euskal Herrian, ordea, analfabetismo-tasa % 30 inguruan zegoen, batez ere lurralde industrializatuetan (Bizkaian eta Gipuzkoan). Hirietan garapen eta modernizazio handiagoa zegoenez, hezkuntzarako aukerak ere handiagoak ziren. Aldiz, landa-eremuetan, batez ere Nafarroan eta Bizkaiko mendebaldean, analfabetismoa oraindik altua zen. Euskararen erabilera oso zabala zenez, batzuetan hezkuntzarako oztopo bihurtzen zen, haurrek ez zekitelako gaztelaniaz eta klaseak gaztelaniaz zirelako.

Ikasleak pertsona analfabeto baten lekuan jarriko dira, eta analfabeto izateak sortzen dituen oztopoak azalduko dituzte idazlanean, lehenengo pertsonan, euren gogoetak jasoz, eguneroko bat balitz bezala. Era honetako egoerak jaso ditzakete, adibidez: abokatu batengana joan eta sinatzen jakin ez, medikuaren oharrak irakurri ezin, seme-alabei eskolako lanetan ezin lagundu, irakurtzen ez jakiteagatik negozio bateko iruzurrean jausi...

Amaitzeko, irakasleak proposatutako galdera batzuen bidez, hausnarketa egingo dute elkarrekin.

- *Historia egiten.* Ikasleek, taldeka lan eginez, Irakaskuntza Erakunde Askeari (IEA) buruzko alderdi esanguratsuenak aztertuko dituzte, ikuspegi kritiko eta kooperatibo batetik.

Hasierako saioan, irakasleak Irakaskuntza Erakunde Askearen aurkezpen bat egingo du, testuingurua azalduz (XIX. mendearen amaiera, hezkuntza sistema, etab.). Sarean, IEA zer den azaltzen duten hainbat bideo labur aurkitu daitezke:

IRAKASKUNTZA ERAKUNDE ASKEA (IEA)


Irakaskuntza Erakunde Askea (IEA) 1876an sortu zuen Francisco Giner de los Ríos filosofo eta pedagogoak. Helburu nagusia askatasun intelektualean oinarritutako hezkuntza laiko eta zientifikoa sustatzea zen. Hezkuntzak ikaslearen garapen osoa bilatu behar zuela defendatzen zuen, ezagutza akademikoa, morala eta estetikoa uztartuz. Naturaren behaketa, artea, ikerketa eta pentsamendu kritikoa ere funtsezko zutabeak ziren. IEAk gizarte aurrerakoi eta demokratiko baterako oinarriak errotu nahi zituen, Espainia modernitateari zabaldu ahal izateko.

Espainiako II. Errepublikako (1931–1939) hezkuntza-erreforman, IEAren ideiak oinarritzkoak izan ziren. Eskola publikoa, laikoa eta doakoa ezarri zen, eta Elizaren eragina baztertu. Misio Pedagogikoak abiarazi ziren, landa-eremuetan kultura eta hezkuntza zabaltzeko, eta Andereñoen Egoitza eta haren tankerako erakundeek emakumeen prestakuntza bultzatu zuten. IEAren espirituak errepublikaren hezkuntza-politika progresista inspiratu zuen, eta haren balioak —askatasuna, berdintasuna eta zientziaren garrantzia— politika publikoetan islatu ziren, nahiz eta Gerra Zibilak proiektu hori eten zuen.

YOUTUBE:

- [*La Institución Libre de Enseñanza.* \(Experimento de Maestro\)](#)
- [*Efemérides. Hace 135 años se fundaba la Institución Libre de Enseñanza.* \(Agencia EFE\)](#)
- [*Cómo y dónde estudiaron genios españoles. ILE.* \(En Encéfalo\)](#)

Talde bakoitzak IEAri buruzko alderdi hauetako batean sakonduko du:




Ikasleek testuak, artikulua eta bideoak erabiliko dituzte informazioa bilatzeko. Talde bakoitzak bere ikerketa poster batean aurkeztuko du eta 5-7 minutuko aurkezpena egingo du beste ikasleen aurrean.

- *Zineforuma*. Jose Luis Cordak 1999an zuzendu zuen *La lengua de las mariposas* filma ikusiko dute ikasleek gelan, eta hari buruzko hausnarketak egingo dituzte, bai filma ikusten duten bitartean eta baita amaieran ere. Irakasleak aurrean bat egin beharko du, filmeko hausnarketa-puntuak identifikatzeko. Sarean hainbat webgune aurkitu daitezke honen inguruan:

- Hezkuntza-arreta: [La lengua de las mariposas](#)
- [La lengua de las mariposas](#), Manuel Rivas 1995
- [La lengua de las mariposas](#) filma [Gaztelaniako irakasgaian aztertzeko oharrak](#).



Istorioak hiru gai nagusi jorratzen ditu: politika, eskola eta Eliza. Bi zatitan banatzen da: lehenengoan, protagonistak beldurra gainditzen du, eta maisuaren eskutik hazten hasiko da; eta bigarrenean, gerraren hasieraren ondorioz, herrian hainbat pertsonak jasandako errepresioak herritarrengan beldurra eragingo du.



Filma ikusi ondoren, irakasleak galdera batzuk egingo ditu, eta denen artean komentatuko dituzte hausnarketa kritiko bat sortzeko. Gai berriren batek interesa pizten badie, momentuan informazioa bilatzeko eta amankomunean jartzeko eskatuko zaie.

Hona hemen hausnarketarako hainbat galdera posible. Erantzunak eta kontzeptuak arbelean idatz daitezke.

NORK KONTATZEN DU ISTORIA?

LOTU GEZIEN BIDEZ PERTSONAIAK FILMEAN
DITUZTEN BALIO ETA SENTIMENDUEKIN:

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • MONCHO • RAMON • ROSA • DON GREGORIO | <ul style="list-style-type: none"> • KONPLIZITATEA • EZINTASUNA • BELDURRA • IDEALISMOA • MIRESMENA • UKO EGITEA • ASKATASUNA • KOHERENTZIA |
|---|---|

PERTSONAIA

GUZTIAK, NORK DITU
BALIO POSITIBOENAK?

MEZATIK IRTETEAN, APAIZAK DON
GREGORIORI ESATEN DIO, MONCHORI
BURUZ: "ESKOLARA JOAN ETA
INTERESA BIHURRITZEA BAT IZAN DA".
NOLA INTERPRETATZEN DUZUE
BAIEZTAPEN HORI? ZUEN USTEZ,
APAIZAREN IRITZIA BEREAK BAKARRIK
DA ALA ELIZA OSOARENA? ETA GAUR
EGUN NOLAKOAK DIRA ESKOLA
PUBLIKOAREN ETA ELIZAREN ARTEKO
HARREMANAK?

MONCHOREN GURASOAK HIZKETAN: -
"MAISUA OSO PERTSONA ONA DA" -
"MAISUEK EZ DUTE IRABAZTEN IRABAZI
BEHARKO LUKETENA. GURE
ERREPUBLIKAREN ARGIA DIRA ". AZALDU
RAMONEN AZKEN HITZEN ESANAHIA. EGIN
KONPARAZIO BAT GIZARTEAK, ORO HAR,
IRAKASLEEI BURUZ DUEN IRITZIAREKIN.
ETA ZUEK ZER DERITZOZUE HAIEN ETA
HAIEN GIZARTE-EGINKIZUNARI?

AMAIERAKO ESZENAN, ZER
GERTATZEN DA? ZERGATIK
EGITEN DU NEGAR
MONCHOREN AITAK? ZER
USTE DUZU SENTITZEN DUELA?

- *Gaur egunera begira.* Ariketa honen helburua ikasleek II. Errepublikak sortutako misio pedagogikoen proiektua ezagutzea izango da, gaur egunerako antzeko proiektu bat sortzeko asmoz. Abiapuntu bezala, TVEk 2007an sortutako *Misiones Pedagógicas de la Segunda República* dokumentala ikusiko dute ikasgelan denek batera.

DOKUMENTALAREN FITXA

Izenburua: "Misiones Pedagógicas de la Segunda República"

Zuzendaria: Gonzalo Tapia

Urtea: 2007

Iraupena: 55 min.

Historia eta eragina aztertzen ditu, testigantza historikoak eta garaiko irudiak erabiliz. Horrez gain, hainbat adituren iritziak jasotzen ditu, proiektuaren garrantzia eta gaur egungo hezkuntza- eta kultura-politikan duen eragina azpimarratuz.

"Las Misiones Pedagógicas de la Segunda República" dokumentalak garai hartako Espainiako gizartearen erronkak eta aurrerapenak ulertzeko aukera ematen die ikus-entzuleei, eta hezkuntza eta kultura herritar guztien eskubide gisa ulertzeko garrantzia azpimarratzen du.


Ikusteko lotura, **HEMEN**

Ikasleak 6-8 taldetan banatuko dira eta dokumentalean agertzen den esaldi edo argazki historiko bat aukeratuko dute. Aukeran, irakasleak ere prestatu ditzake 6-8 esaldi. Adibidez:

- "Llevar la cultura a los pueblos no era un regalo, era una deuda".
- "No sabían leer, pero entendían el teatro".
- "No se podía esperar a que vinieran a la escuela: había que ir a ellos".

Esaldi horren esanahia eta testuingurua aztertuko dute ondoren ikasleek: zer esan nahi du esaldiak? Zer egoera deskribatzen du?

Aukeratu duten esaldi edo argazkian oinarrituta, gaur egunerako Misio Pedagogiko bat diseinatuko dute, honako hauek definituz:



Lana aurkezteko modua talde bakoitzak aukeratuko du (poster bat, power pointa edo infografia digitala, adibidez) eta arte eta literaturako baliabide batzuk ere prestatuko dituzte (gaiarekin lotutako liburu edo ikus-entzunezko proposamenen zerrenda txiki bat).

Proiektuak gelan aurkeztuko dira, aukeratutako esaldia ere azalduz eta gaurkotasuna nabarmenduz.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena, antzezpena eta idatzizko gogoeta egingo dute ikasleek.

5. *Gaia*. **Emakumeak II. Errepublikan** (II. Errepublikaren garapena)

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-ii-errepublikan>



Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Espainiako II. Errepublikan emakumeen eskubideak eta rola nola aldatu ziren aztertuko dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Betidanik izan al dute emakumeek boto-eskubidea?
- Gizonezkoek eta emakumezkoek neurri berean egingo al zituzten goi-mailako ikasketak? Zergatik?
- Zer da zuentzat berdintasuna?
- Zein da zuentzat irakasle batek gizartean izan behar duen papera?
- Ezagutzen al duzue gerra aurreko emakume garrantzitsurik? Eta Euskal Herrikoak?

2. Talde txikitan jarrita, gaiak sortzen dizkien inpresio eta emozioak zerrendatuko dituzte ikasleek, eta ondoren arbelean idatzi.

- Nolakoa izango zen emakume baten bizitza 1930eko hamarkadan? Eta lehenago?
- Zer sentimendu sortzen dizkizue jakiteak emakumeek ez zutela boto-eskubiderik?
- Nola sentituko zinatekete zuen iritzia ezingo bazenute publikoki adierazi?
- Zuen ustez, hezkuntzak aldatu al dezake norbanako baten bizitza? Eta gizartearena? Nola?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib.: “pedagogia”, “boto-eskubidea”, “militantzia”, “ikastola klandestinoak”, “Euskadiko Estatutua”, “mitinlaria”...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.


Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritzia partekatu, talde(t)an:

- Zer aldaketa nagusi ekarri zituen II. Errepublikak emakumeentzat?
- Zergatik izan zen hezkuntza hain tresna indartsua emakumeentzat garai hartan?
- Zergatik uste duzue sortuko zirela ikastola klandestinoak? Ezagutzen al duzue zuen inguruan sortutakoren bat?
- Gaur egun oraindik ikusten al dituzue emakumeek berdintasunez parte hartzeko oztopoak?
- Nola erabil dezakegu historia honetatik jasotakoa, gaurko gizarte hobe bat eraikitzeko?

3.

- Espainiar guztiak berdinak dira legearen aurrean.
- Ez da onartuko sexuan oinarritutako diskriminaziorik eskubide zibil edo politikoetan.
- Hezkuntza publikoaren helburua Espainiako gizartearen garapen intelektual, morala eta fisikoa da.



(1931ko Konstituzioaren 3., 43. eta 48. art.)

Iturria

II. Errepublika ezarri zenean, berarekin batera 1931ko konstituzioa onartu zen, eta batez ere gizarte eta politika alorretan eraldaketa sakonak eman ziren. Horien artean nabarmenetako bat emakumeek boto-eskubidea eta ordura arte ez zituzten hainbat eskubide lortzea izan zen. Konstituzioaren 43. artikulua, **emakumeen eskubideen normalizazioa** ekarri zuen, 3. artikulua **emakume eta gizonen eskubide zibil eta**

politikoak parekatu zituen eta 48.ak, beste bien babesarekin, unibertsitateko ikasketetarako sarbide berdintasuna ahalbidetzen zuen emakumeentzat ere, lehen aldiz formalki eta maila guztietan.

4. Azken ekoizpena: Azken ekoizpena egiteko lau adibide dituzte hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *Zineforuma.* Laura Mañá zuzendariak 2011n zuzendu zuen *Clara Campoamor*: *la mujer olvidada* filma gelan ikusiko dute ikasleek eta hari buruzko hausnarketak egingo dituzte, bai filma ikusten duten bitartean eta baita amaieran ere.



Filma euskarri fisikoan aurkitu daiteke hainbat liburutegi publikotan, mailegatzeko edo, behar izanez gero, liburutegien arteko maileguan eskatzeko.

- [Euskadiko Liburutegien katalogo bateratua](#)
- [Nafarroako Liburutegi Publikoen katalogoa](#)



Filma ikusten ari diren bitartean, ikasleek deigarria egiten zaiena apuntatuko dute, eta hausnarketarako tartea emango zaie amaieran. Ondorengo galdera hauek edo beste batzuk erabil daitezke horretarako:

- Zerk harritu zaitu gehien filmean ikusitakoen artetik? Zergatik?
- Zure ustez, zergatik defendatu zuen hain sutu Clara Campoamorrek emakumeentzako boto-eskubidea?
- Zein izan zen Victoria Kenten jarrera? Eta ulertzen al duzu haren beldurra? Ados zaude harekin?
- Filmean, emakume askok beren eskubideen kontra egiten dute. Zure ustez, zergatik gertatzen da hori?
- Nola ikusten duzu emakumeen egoera filmean gaur egungoarekin alderatuta? Zertan aurreratu dugu eta zertan ez?
- Zer momentu edo elkarrizketa iruditu zaizu gogoangarriena? Zergatik?
- Zabalik al zeuden emakumeentzat boterearen eta politika-munduaren ateak? Nolako oztopoak topatu zituzten?
- Zergatik da hain garrantzitsua emakumeen boto-eskubidea historiaren ikuspegitik? Eta, gaur egun?
- Clara Campoamorrek bakardade handia bizi zuen bere borrokan. Zergatik gertatzen da hori maiz aitzindariekin?

Amaitzeko, ikasleek gogoeta bana idatziko dute, X plataforman egingo balute bezala, landutako gaiari buruz. Clara Campoamorri buruz izan daiteke, baina baita Victoria Kenti buruz edota 1931ko emakumearen rolari buruz edo berdintasunari buruz ere. Gelako pareta batean itsatsiko dituzte gogoeta guztiak egun batzuez, gelakide guztiek irakurtzeko.

- *Mundu zabalean.* Ikasleak hirunaka banatuko dira eta historiako emakume baten biografia osatuko dute. Proposamen honen helburua emakume erreferenteak identifikatzea eta haien ekarpena ezagutzea da, talde-lana sustatuz eta garaiko testuinguruaren lanketa eginez.

Hona hemen emakume erreferente batzuen izenak. Hauetakoren bat aukeratu dezakete ikasleek:



Clara Campoamor



Dolores Ibarruri



Margarita Nelken



Virginia Bolten



Virginia Wolf



Rosa Luxemburg



Elbira Zipitria



Zenobia Camprubí



Clara Zetkin



Maria de Maeztu



Victoria Kent

Biografia pertsona baten bizitza kontatzen duen testu mota da eta, normalean, kronologikoki idatzita egoten da. Lehenengo, ikasleek informazioa bilatu beharko dute:

- *Jaiotza: Noiz eta non jaio zen?*
- *Familia: Nolakoa zen haren familia?*
- *Hautzaroa: Non bizi zen? notakoa izan zen haren hautzaroa?*
- *Hezkuntza: Non eta zer ikasi zuen?*
- *Lanbidea: Zein esparrutan aritu zen? (politika, hezkuntza, kultura...)*
- *Lorpen nagusiak: Zer egin zuen erreferente izateko?*
- *Oztopo nagusiak: Zer oztopo izan zituen?*
- *Heriotza: Nola hil zen?*

Behin informazioa bilduta, antolatu egin beharko dute. Hiru multzo nagusitan banatu daiteke informazioa: hasiera (jaiotza, familia, hautzaroa eta hezkuntza), garapena (lanbidea, lorpen nagusiak eta oztopoak) eta amaiera (heriotza eta gaur egunerako egin duen ekarpena).

Ikasleek idatziz aurkeztuko dute biografia, sarean argazkiak bilatuta eta iturrien erreferentziak aipatuta. Hona hemen, adibide bezala, Eibarko Udalaren Egoibarra Batzordeak sortutako biografia batzuk:

- [Felipa Gisasola Gabiola](#)
- [Mercedes Kareaga Gisasola](#)
- [Felisa Ventura Irigoyen](#)



Lanak gelakideen aurrean aurkeztuko dituzte, 3-5 minutuko hitzaldien bitartez. Amaieran, hausnarketa txiki bat egin dezakete garai eta leku ezberdinetan bizi arren emakume hauek zituzten antzekotasunen inguruan.

- *Irakurketa-kluba*. Ikasleek Josefina Aldecoaren *Historia de una maestra* liburua irakurriko dute. Proposamen hau Gaztelania eta Literatura ikasgaiarekin batera egin daiteke.

HISTORIA DE UNA MAESTRA

1923an Gabrielak irakasle titulua lortu zuen. Ametsaren hasieran, lanbideak Espainian eta Ekuatore Ginean lan egitera eraman zuen. Gabrielaren kontakizuna eta bizitza da hau, 1920ko hamarkadatik Gerra Zibila hasi arte.

II. Errepublikaren, Urriko Iraultzaren eta gerraren testuinguruan, eleberrri honek garai hartako pobrezia, ezjakintasuna eta zapalkuntza nolakoak ziren gogoratuko ditu, irakasleek eta hezkuntzak egoera horri aurreko egiteko nola borrokatu zuten goraipatuz.

Egilea: Josefina Aldecoa
ALFAGUARA, 2021



Testu literarioa ikuspegi historiko batetik aztertzea da ariketa honen helburua. Ikasleak 5 taldetan banatuko dira eta irakurketa gidatu bat egingo dute. Horretarako, talde bakoitzak honako gai hauetako bat aukeratuko du:

1. Hezkuntza-erreformak eta eskola publikoa
2. Emakumearen rola gizartean
3. Gizarte-polarizazioa eta gatazka ideologikoak
4. Eskola publikoaren hedapena eta herrien errealitatea
5. Hirien eta landa-eremuen arteko ezberdintasunak

Proposatzen den gai bakoitzaren irakurketa gidatua egiteko, hona hemen fitxa batzuk. Gai bakoitzaren hasieran, eleberriko zita edo esaldi bat agertzen da; ikasleek euren gaiarekin lotutako beste esaldi batzuk identifikatu beharko dituzte irakurtzen ari diren bitartean.

1. Hezkuntza-erreformak eta eskola publikoa

“La escuela era una habitación desnuda, con bancos y una mesa. No tenía ni estufa, ni libros, ni cuadernos. Pero la ilusión que llevábamos era tan grande que no importaban las carencias”

Analisirako gaiak:

- Irakaslearen lan-baldintzak, prestakuntza eta eskola publikoetan lan egitea.
- Herrietako eskola berrien sorrera, baliabide falta eta haur guztientzako hezkuntza-eskubidea.

Aztertu eta hausnartu:

- Zer aldaketa sustatu zituen II. Errepublikak hezkuntzan?
- Zer helburu zituen eskola publiko laikoak?
- Zergatik zen garrantzitsua alfabetatzea? Zer erantzun sozial izan zuen?
- Zergatik zen erronka irakasle izatea herri txiki batean?
- Nolakoa da gaur egungo egoera eskola txikietan? Ba al dago antzekotasunik?

2. Emakumearen rola gizartean

“Mi madre me decía que una mujer sola no estaba bien vista. Que una mujer decente tenía que casarse, formar una familia. Pero yo quería ser maestra, tener mi independencia, valerme por mí misma.”

Analisirako gaiak:

- Irakasleak emakume izateagatik jasaten dituen aurreiritziak: ezkontzeko presioa, autoritatea zalantzan jartzea...
- Nibelako beste emakumezkoen rola (gurasoak, lagunak...)

Aztertu eta hausnartu:

- Zer aukera zituen emakume batek garai hartan? Zer muga?
- Emakumeek boto-eskubidea lortu zuten 1931n: zer eztabaida piztu zen?
- Zeregin sozial eta ideologiko garrantzitsua zuten emakume irakasleek?
- Zure ustez, nolakoa da gaur egungo emakume irakasle baten egoera?
- Nola eraldatu da emakumearen eginkizuna hezkuntzan?

3. Gizarte polarizazioa eta gatazka ideologikoak

“Algunos vecinos nos miraban con desconfianza. Decían que veníamos a quitarles la religión a los niños, que la Escuela Nueva era un invento de los rojos.”

Analisirako gaiak:

- Elizaren eta Errepublikaren arteko tentsioak.
- Herriarren arteko zatiketak: tradizioaren eta modernitatearen arteko talka.

Aztertu eta hausnartu:

- Zer leku zuen Elizak hezkuntzan eta gizartean?
- Zergatik eragiten zuen hainbeste erresistentzia eskola laikoak?
- Zerk sortzen du gaur egun polarizazioa hezkuntzan edo ideologian?
- Ikusten al da oraindik iragan horren oihartzunik?

4. Eskola publikoaren hedapena eta herrien errealitatea

“Muchos niños venían descalzos. La escuela era para ellos un lugar cálido, donde no solo aprendían, también descansaban de la dureza de su vida.”

Analisirako gaiak

- Haur asko desnutrizio egoeran edo oinutsik azaltzen dira eta eskola haien babesgune bihurtzen da.
- Eskola publikoak, hezteko ez ezik, haur txiroenei jaten, berotzen eta bizitzen laguntzeko baliagarriak ziren.
- Irakaslearen lana ez zen soilik irakastea: komunitatearekin harremanak, osasunaren zaintza eta beste hainbat funtzio ere betetzen zituen.

Aztertu eta hausnartu:

- Zer eginkizun osagarri hartzen zituen eskola publikoak herri behartsuenetan?
- Nola lagundu zuen hezkuntzak desberdintasun sozialak arintzen?
- Nola azaltzen du eleberriak garaiko egoera sozioekonomikoa?
- Gaur egun ba al daude eskola “babeslekutzat” duten haurrek? Non eta zergatik?
- Zein da zuen ustez hezkuntzaren funtzio sozial nagusia gaur egun?

5. Hirien eta landa-eremuen arteko ezberdintasunak

“En la ciudad, la escuela es otra cosa. En los pueblos, la maestra tenía que ser médico, psicóloga, madre y maestra a la vez.”

Analisirako gaiak

- Hirietako eta herrietako eskolen arteko aldeak: baliabideak, ikasleen jarrera, gurasoen parte-hartzea...
- Herri txikietan, irakasleek funtzio asko betetzen zituzten: sendagile, aholkulari...
- Eskola hirian egoteak edo herrian egoteak ikasleen aukera-berdintasuna baldintzatzen du.

Aztertu eta hausnartu:

- Zer desberdintasun zeuden II. Errepublikan hirietako eta landa-eremuetako eskolen artean?
- Zer eragin zuen horrek alfabetatze-tasan eta hezkuntzaren kalitatean?
- Zer zailtasun izan zituzten irakasleek herrietan lan egitean?
- Gaur egun, oraindik ba al dago hezkuntza-desberdintasunik lurraldearen arabera?
- Nola berma daiteke kalitatezko hezkuntza guztientzat, bizi diren tokia kontuan hartu gabe?
- Zer rol izan beharko luke eskolak komunitate txiki bateko kohesioan?

Fitxa bakoitzak, analisirako gaiak eta hausnarketarako galderak izango ditu. Talde bakoitzak galdera horiei erantzungo die eta ondorioak ahozko aurkezpen baten bidez emango dituzte, gainerako taldeek ere entzuteko. Posterrak edo aurkezpen digitalak erabil ditzakete.

Talde guztiek aurkezpenak bukatu ondoren, elkarrekin hausnarketa egingo dute, liburuan azaltzen diren eta gaur egun gertatzen diren antzekotasunak bilatzeko.

- *Sormena lagun.* 1930eko hamarkadako estiloa erabiliz, ikasleek kartelak sortuko dituzte, talde txikitik, gai ezberdinak jorratuz: emakumeen botoa, hezkuntzarako eskubidea haur guztientzat, eskola publikoen aldeko mezua, maistren lana, emakumeen unibertsitaterako sarbidea, emakumearen independentziarako eskubidea, dibortzioa...



Iturria

Sarean aurkituko dituzten garaiko kartelak oinarri bezala hartuta (estiloa, tipografia, leloak, koloreak...), mezu argi bat transmititzen duen kartel bat sortuko dute. Adibidez: “Emakumeok bozkatzeko prest, orain!”. Kartelak eskuz zein digitalki egin daitezke, collagea erabili, letrak bakarrik...

Amaieran, talde bakoitzak bere kartela eta bere mezua aurkeztuko ditu, eta zein kartel historikotan oinarritu den kontatuko du. Gero, gelako horman jarriko dira guztiak, eta mezua hobekien transmititu duen kartela aukeratuko dute.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena, antzezpena eta idatzizko gogoeta egingo dute ikasleek.

6. gaia. Gizartearen polarizazioa II. Errepublikan (II. Errepublikaren

garapena) <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gizartearen-polarizazioa-ii-errepublikan>




Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara, orainaldia hobeto ulertzeko. Espainiako II. Errepublikaren epealdian nagusitu ziren ideologia ezberdinak eta gizartearen polarizazioa aztertuko ditugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Zer uste duzue esan nahi duela “polarizazio” hitzak?
- Noizbait sentitu al duzue gizartea zatituta zuen inguruan?
- Gaur egun, mundu-mailan, ezagutzen al duzue gizarte zatiturik?
- Zergatik uste duzue sortzen direla tentsio politikoak gizartean?
- Zertan bereizten dira eskuineko eta ezkerreko ideologiak?
- Zergatik sortzen dira grebak?

2. Talde txikitan jarrita, gaiak sortzen dizkien inpresio eta emozioak zerrendatuko dituzte ikasleek, eta ondoren arbelean idatzi.

- 
- Zer ondorio ekar ditzake hauteskundeetan iruzurra gertatzeak?
 - Ba al dakizu nor dagoen boterean Espainian? Eta Euskadin/Nafarroan?
 - Nola eragiten dute zuen bizitzan boterean dauden gobernuek?
 - Sistema baten kontra altxatzea zilegi dela uste al duzue?
 - Zer neurri hartu beharko lituzke gobernuek?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib.: “polarizazioa”, “eskuina-ezkerra”, “faxismoa”, “amnistia”, “altxamendu militarra”...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritzia partekatu, talde(t)an:

- Zein izan zen zuen ustez gizartea hain banatuta egotearen arrazoia?
- Zergatik uste duzue ematen zuela jendeak bere botoa? Zuek emango edo salduko al zenukete zuen botoa? Zergatik?
- Zuen ustez, zergatik sortu zen hainbeste beldur faxismoarekin?
- Noiz uste duzue dela zilegi sistema baten kontra altxatzea?
- Greba baten aurrean gobernuak errepresio militarra erabiltzea justifikatuta dagoela uste al duzue? Zergatik?
- Gaur egun halako errepresiorik ikusten al da inguruan? Eta mundu-mailan?

3. Espainiako Bigarren Errepublikaren (1931-1939) ezaugarriak nabarmenetako bat polarizazioa izan zen. Polarizazio politiko, sozial eta ideologiko sakona gertatu zen, herritarren eta alderdi politikoaren artean. Polarizazio horren oinarria hainbat arlotan egindako erreforma sakonetan zegoen: lur-jabetzaren banaketa, Elizaren boterearen murrizketa, hezkuntza laikoaren sustapena eta armadaren berrantolaketa, besteak beste. Erreforma hauek ezkerreko sektoreek bultzatu zituzten, herritar askoren eskubideak eta bizi-baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Hala ere, erreforma horiek ez zuten adostasunik lortu, eta gizartearen zati handi baten kontrako erreakzio gogorra eragin zuten. Eliza katolikoak, lur-jabe handiek, armadako sektore kontserbadoreek eta klase altuak kezka zituzten aldaketak, eta eskuin muturreko taldeak indartzen hasi ziren. Aldi berean, langile mugimenduak, sindikatuak eta ezkerreko alderdiak gero eta erradikalagoak bihurtu ziren, erreformen ezintasunez eta zapalkuntzaren jarraipenaz nekatuta.

Egoera politikoa are gehiago okertu zen 1933ko hauteskundeetan, eskuina boterera iritsi zenean. Bi aldeen arteko tentsioa geroz eta handiagoa zen, eta euren posizioak gogortu zituzten. Polarizazioak kale-borrokak, greba orokorrak eta altxamenduak ekarri zituen, hala nola, 1934ko Urriko Iraultza edo Kataluniako estatutuaren auzia. Azkenik, 1936an Fronte Popularrak (ezkerrak) hauteskundeak irabazi zituen, eta eskuin muturreko sektoreak estatu-kolpea prestatzen hasi ziren. Horrela, polarizazioak zuzenean Espainiako Gerra Zibilera eraman zuen herrialdea.



Iturria


4. **Azken ekoizpena:** Azken ekoizpena egiteko lau adibide dituzte hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *Historia egiten.* Talde txikitan, ikerketa txiki bat bideratu beharko dute ikasleek, euren herrian edo eskualdean II. Errepublika garaian zer istilu


politiko, greba, mobilizazio... izan ziren jakiteko. Helburua garai hartako tentsio politiko eta sozialak ikertzea eta ulertzea izango da, ikuspegi pertsonal batetik.

Hasteko, informazioa non bilatu daitekeen azalduko du irakasleak.

- Udal artxiboan
- Herriko liburutegiko Tokiko Bilduman
- Elkartek eta museoetan
- AHOTSAK.EUS
- Familian
- Egunkari zaharretan (liburutegietan edo online)




Ikasleak 2-3 lagunekin taldeetan banatuko dira eta Udal artxiboekin, elkarrekin edota familiarekin kontaktuan jar daitezke, informazioa lortzeko. Informazio-iturrietan honako puntuak bilatzen hasiko dira.



Lortutako informazio guztiarekin ahozko aurkezpen bat prestatuko dute, gehienez 10 minutukoa, eta herrian izandako gertakarien berri emango diete klasekideei. Argazki zaharrak, dokumentuak edota testigantzak ere erakusteko aukera izango dute.

- *Gaur egunera begira.* Historia ez dago aurretik erabakita. Gertakariak ez dira zertan beti modu bakarrean gertatu behar izan eta pertsonen hartzen dituzten erabakiek eta egoerek aldatu egiten dute historia. Proposamen honetan historiako eszenatoki alternatiboak buruzko hausnarketa egingo da eta gauzak beste modu batera ere gerta zitezkeela konturatzea izango da helburua.

Ikasleek, talde txikitan, “Eta... gertatu izan balitz?” galderari erantzunez, II. Errepublika garaiko gertaera batzuen alternatiba posibleak irudikatuko dituzte, eta pentsamendu kritikoa aktibatuko dute.



Hipotesi bat aukeratuko dute eta 1-2 orrialdeko gidoi bat prestatuko dute, eszenatoki alternatiboaren ondorio politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak behar bezala irudikatuz. Hona hemen hipotesi posible batzuk (beste batzuk ere asma ditzakete, beti ere lanketaren testuinguruaren barruan):

Gidoia egiteko, hausnarketarako galdera batzuk egin beharko dituzte.
Adibidez:

- Nola aldatuko zatekeen Espainiako historia?
 - Zer gertatuko zatekeen Euskadin / zuen herrian?
 - Zer ondorio izango zukeen Europan?
 - Nor dira protagonistak?
 - Zein izan daiteke egoera berria?
 - Zer gatazka sortuko dira?
 - Nola konponduko da?
 - Alternatiba horren barruan, amaiera ezberdinak egon al daitezke?
- Zein?

Gidoia prest dutenean, hipotesia ahoz (kontaketa dramatizatua, podcast moduko bat...) edo antzezpen txiki baten bitartez (3-5 minutukoa) aurkeztuko dute. Kartelak, musika, efektuak edo irudiak erabiltzeko aukera izango dute.

Aurkezpenak bukatzean, irakasleak gidatutako hausnarketa orokor bat egingo dute, prestatu diren hipotesiek gaur egun nolako inpaktua izango luketen irudikatzeko.

- *1ka-mika.* 1936ko hauteskunde garaian kokatuko dira ikasleak, 4-5 laguneko taldetan, rol ezberdin bat hartuz eta eztabaida politiko bat sortuz. Proposamen honen helburua 1936an zeuden bi bloke nagusiak (Fronte Popularra eta CEDA) eta berauek gizartean izango zituzten ondorioak ezagutzea izango da, herritar ezberdinen paperean sartuta.

Bost taldetan banatuko dira ikasleak eta guztiek testuinguru historikoa ikertu beharko dute, baina bakoitzak bere rolaren ikuspegitik. Horrela, denek egingo dute ikerketa, baina ikuspegi desberdinetatik. Hona hemen gida txiki bat, talde bakoitzeko kideek egin beharreko ikerketan laguntzeko.

TALDEA	HAUSNARKETA	EGINKIZUNA
Frente Popular	Zer neurri nahi dituzue Espainia salbatzeko? <u>Frente Popularraren programa</u>	Hauteskunde kanpaina prestatzea, euren programa defendatzeko.
CEDA	Zer neurri nahi dituzue Espainia salbatzeko? <u>CEDAren programa</u>	Aurkako kanpaina eta euren proposamenak azaltzea.
Kazetariak	Zein dira alde bakoitzaren punturik eztabaidagarrienak?	Beste taldeei galdera kritiko eta objektiboak egin, eztabaida gidatu eta kronika idatzi.
Herritar taldeak	Zein dira zuen kezkak? Lana? Eskola? Erlijioa?	Eztabaida garaian, bi blokeei galderak egiteko eskubidea dute.
Sindikalistak eta Eliza / Armada	Zer interes dituzue jokoan?	Eztabaida amaitzean, ondorioak atera, hausnarketa gidatu, testuingurua azaldu.

Ikasle bakoitzak bere rolari dagokion informazio-bilketa egiten duenean, taldeka elkartuko dira eta eztabaidarako estrategia martxan jarriko dute. Eztabaida dinamikoa izango da 6 fase izango ditu:

- 1 **Aurkezpena (1-2 min/taldeko)**
Frente Popularrak eta CEDAk euren programa azalduko dute
- 2 **Kazetarien galderak (1-2 min/txanda)**
Kazetariak taldeei galdetuko diete programari buruz
- 3 **Herriaren interbentzioa (1-2 galdera talde bakoitzari)**
Herritarrek euren beldurrak / interesak adierazi eta galderak egingo dituzte
- 4 **Sindikalisten taldea eta Eliza/Armada taldea (1-2 min bakoitzak)**
Jarrera publiko bat hartuko dute: nori ematen dioten babesak eta zergatik
- 5 **Azken mezua eta hauteskunde kanpainaren leloa**
CEDA eta Frente Popular taldeek botoa erakartzeko leloa plazaratuko dute
- 6 **BOTOA EMAN**
Herritar taldeak botoa emango du, zergatia azalduz

Herritarren taldeak botoa eman eta zenbaketa egin ondoren, hausnarketarako ordua helduko da. Irakasleak zenbait galdera planteatuko ditu, besteak beste, bakoitza bere rolean ondo sentitu den ala dudak izan dituen jakiteko edota gaur egun zein alderditan egongo liratekeen pentsatzeko.

- *Iritzia eman.* Azken urteetan Espainiako –eta munduko– gizartean gero eta tentsio politiko eta sozial handiagoak ikusten ari gara: Vox eta Podemos bezalako alderdien arteko talka, sare sozialetan eztabaida gogorrak, edo independentziaren inguruko gatazkak, besteak beste.

Iragana eta oraina lotuz, ikasleek gizarte polarizatu baten ezaugarriak identifikatzea lortu dutela jakiteko, ikuspegi historikotik abiatuta, gaur egungo gizartearen polarizazioaren hainbat adibide aztertu eta haien inguruko iritzia emango dute, II. Errepublikako egoerarekin konparaketa eginez.

- Zer faktorek zatitzen zuten gizartea garai hartan?
- Zer antzekotasun daude gaur egungo egoerarekin?
- Eta, batez ere: Zer egin liteke gizartea berriz elkartzeko?

Euskal Herrian, Espainian eta mundu-mailan dauden hiru gatazka edo tentsio polarizatu aukeratu dituzte ikasle bakoitzak eta II. Errepublikako egoerarekin alderatuta, paralelismoak bilatu dituzte.

- Zer antzekotasun daude?
- Zer desberdintasun?
- Zer faktorek elikatzen dute polarizazioa bi garaietan?



Iturria

Elkarrekin eta irakaslea gidari dela, gatazken zerrenda bat egin dezakete eta arbelean idatzi, lurraldeka banatuta. II. Errepublikarekin izan dezakeen paralelismoaz ere hausnartu dezakete. Hona hemen ideia batzuk:

EUSKAL HERRIKO GAUR EGUNGO GATAZKAK

- Euskal Herriko gazte mugimenduen polarizazioa: Ernai-GKS
 - Errepublikan batzuek estatu barruko erreformak nahi zituzten; beste batzuek, ordea, sistema osoaren iraultza.
- Gaur egungo aniztasun politikoa: EH Bildu, EAJ, PSE, PP...
 - Gizarte polarizatua: nazionalistak, sozialistak, errepublikazaleak, karlistak, monarkikoak, falangistak...
- Oroimen historikoa berreskuratzeko mugimenduak: hobien irekiera, frankismoaren biktimen aitortza...
 - Gerra Zibilaren osteko errepresio gogorra
- Hezkuntza-ereduaren inguruko gatazka: eskola publikoa vs. itunpekoa
 - Hezkuntza laikoa eta erlijiosoa
- Lan gatazkak: Tubacex, Petronor...
 - Eibarko eta Arrasateko grebak, 1934ko Iraultzaren testuinguruan.

ESPAINIAKO GAUR EGUNGO GATAZKAK

- PSOE vs. PP / Vox – polarizazio ideologikoa eta hitz egiteko zailtasuna
 - Frente Popular vs. CEDA – polarizazio politiko handia
- Vox-en gorakada, frankismoaren aldeko adierazpenak eta memoria historikoaren aldeko/aurkako diskurtsoak
 - Faxismoaren gorakada eta beldurra
- Gaur egungo independentzia-prozesuak (Katalunia, Gernikako Estatutua betetzeko eskariak...)
 - Kataluniako eta Euskadiko autonomia-eskaera.

MUNDU-MAILAKO GAUR EGUNGO GATAZKAK

- *Ultraeskuineko mugimenduen gorakada: Le Pen (Frantzia), Meloni (Italia), Orbán (Hungaria).*
 - *Nazismoaren eta faxismoaren gorakada (Alemania, Italia)*
- *Palestina/Gazako gatazka*
 - *Armadaren esku-hartzea gatazkan, militarren indarkeriaren erabilera, eta gizartearen zatiketa*
- *NATO bai edo ez*
 - *II. Errepublikan, ezkerrekoak armadaren kontra eta eskuinekoak alde.*
- *Emakumeen eskubideetan atzerapausoak hainbat herrialdetan (Iran, AEBn abortuaren debekua...)*
 - *Emakumeen eskubideak murriztuta gerra-testuinguruetan*
- *Arrazakeriaren gorakada, islamofobia, migratzaileen aurkako diskurtsoak Europar Batasunean eta AEBn*
 - *Antisemitismoa eta gutxiengoen aurkako jazarpenak*



Iturria

Ikasle bakoitzak talde bakoitzetik gatazka bana aukeratuko du. Gaiari buruzko informazioa bilatu ostean, testu txiki bat idatziko du, ondorengo eduki hauek zehaztuz:

- Gatazka bakoitzaren deskribapena eta nondik norakoak.
- Hiru gatazken arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.
- II. Errepublikako testuinguruarekin lotu.


Idazlana prestatu bitartean barne-hausnarketa egingo dutenez, amaieran gelakide guztiak elkartu eta landutakoa bateratu dezakete. Irakasleak galdera batzuk planteatuko ditu, pentsamendu kritikoa lantzeko.

- Zerk eragin du polarizazioa orduan eta orain?
- Zer ikas daiteke orduko egoeretatik gaur egungo gatazkei begira?
- Zer arrisku daude iragana ez bada ondo ulertzen?

5. Ekoizpena partekatzea. Ahozko aurkezpena, antzezpena eta idatzizko gogoeta egingo dute ikasleek.

7. *Gaia*. **Gerraren hasiera** (1936ko Gerra Zibilaren hasiera I)

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gerraren-hasiera>




Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo du irakasleak. Lehenaldira begira jarriko gara orainaldia hobeto ulertzeko. Gerraren hasiera aztertuko dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Gerrarik egon al da hemen? Noiz? Zer gertatu zen?
- Nortzuk borrokatzen zuten elkarren kontra?
- Zer gehiago dakizue horri buruz?

2. Talde txikitan jarrita, gaiak sortzen dizkien inpresio eta emozioak zerrendatuko dituzte ikasleek, eta ondoren arbelean idatzi.

- 
- Zer uste duzue eragin zuela gerrak?
 - Zer sortzen du zuen barruan "gerra" hitzak?
 - Posible ikusten al duzue hemen berriz gerrarik izatea?
 - Zer egingo zenukete gerra hasiko balitz?

Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta piztu dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak idatzi. (Adib.: "Bilbo hartu", "Donostian sartu", "milizianoa", "erreketeak",...)

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.


Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Ezaguna egin al zaizue bideoan aipatu duten zerbait? Entzun al duzue halakorik aurretik?
- Nola sentitu zarete bideoa ikustean? Eragin al dizue sentipenen bat?
- Bideoan agertzen diren lekukoak 1936ko gerra-garaian umeak ziren. Lortu al duzue haiek horrela irudikatzea?
- Zer izan da zuentzat deigarriena? Zein ideia azpimarratuko zenukete bideotik?
- Zergatik esaten zen gerra 15 egunean bukatuta egongo zela?

3. Azken ekoizpena: Azken ekoizpena egiteko hiru adibide dituzte hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *Mundu zabalean.* Gaur egun munduko toki askotan daude gerran. Komunikabideek erakusten dizkigutenak baino askoz gehiago dira, tamalez. Lehenbizi, denen artean gerran dauden herrialdeen zerrenda osatuko dute eta, ondoren, talde txikietan edo binaka herrialde horietako bana aukeratuko dute, ikerketa egiteko: non, noiztik, zergatik, ondorioak, errefuxiatuen egoera... Ondoren, aurkezpen txiki bat prestatuko dute, jasotakoa ikaskideekin partekatzeko. Gelakideei azalduko diete gero (bikote edo talde bakoitzak aurkezpena nola egin erabakiko du: programaren bat erabil daiteke, kartoi meheak, argazkiak...). Aurkezpenak egin ahala, gerra-guneak munduko mapa batean kokatzen joan daitezke.



Egungo munduko gatazken mapa. [Iturria](#)

Beste aukera bat: errefuxiatuekin lan egiten duen erakunderen bateko ordezkaria gelara eramatea, eta ikasleek elkarriketa egitea (aurrez galderak prestatuta); ondoren, idatziz jarri (egunkarietako elkarriketen ezaugarriekin: argazkia, azgazki-oina, titulua, azp titulua..) eta ikastetxean zabaltzeko. Bideoan grabatuz gero, ikus-entzunezkoa sare sozialetan zabal daiteke.

Adibiderako, ikus Euskal Jakintza ikastetxeko bi ikaslek, Iñigo Martinez futbol jokariari egindako elkarriketaren harira idatzitako [artikulua](#):

Iñigo Martinez: “Pertsonak den bezalakoa izaten jarraitu behar du, futbolaria izan edo beste edozer izan”


by Maddalen Erauskin on 2013(e)ko apirilak 15 in elkarriketak, kirola, solasean

Maitok euskaljakintzarako elkarriketatua nor izango zen pentsatzen hasteko osan ziguenean, [Iñigo Martinez](#) elkarriketatzea otu zitzaigun. Luis Arconada [Errealeko](#) prentsako arduradunarekin kontaktuan jarri ginen gure gelakide Jokin eta Mikel eskerrak, eta elkarriketa onartu zigun. Oso harrera ona egin zigun hara joan ginen Jokin eta Mikelekin batera. Hauek [David Zuruluzari](#) egin zioten elkarriketa. Irtsi ginen, entrenamendua ikusten egon ginen, eta, bukatutakoan, gela batera eraman gintuzten, elkarriketa egin genuen gelara, kinoa dantzan genituela. Hasiera-hasieratik oso ondo hartu gintuzten eta Iñigo ere irakia azaldu zen gu urduri ikusi gintuenean.



[Iturria](#)

- *Testigantza bila.* Ikasleek Interneten arakatuko dute gerra-garaian euren herrian (edo beste herriren batean, nahiago badute) gertatutakoarekin lotutako testigantza gehiago bilatzeko. Horretarako, besteak beste, Ahotsak.eus eta [Gerrako Ahotsak](#) webguneak erabil ditzakete. Banaka edo bikoteka, pasarte bat aukeratu dezakete eta gelakideei aurkeztu, honakoa azalduz: nor den lekukoa, nongoa den, zergatik aukeratu duten pasarte hori eta pasartea erakutsi.



Beste aukera bat, hainbat testigantzaz osatutako honako bideo hauek ikusi eta laburpena egitea izan daiteke:

- [Gerraren hasiera Bergaran](#)
- [Mutrikuko zentro errepublikanoa](#)
- [Gerra hastean, Zumaiaiko udaletxea hartu zuten](#)
- [Elorrion gerra bi aldetatik sartu zen](#)
- [Donostian oporretan zeudela sartu hasi zen gerra](#)
- [Gerra hasierako oroitzapenak Oiartzunen](#)
- [Nazionalak Lekeition sartu zirenean](#)




Zer kontatzen dute? Laburpentxo bat egin eta ahoz kontatu gelan.

Nola egin bilaketak Ahotsak.eus-en?

Aukeratu zure herria GRABAZIOAK atal nagusian. Eibar aukeratuko dugu adibiderako:



Behin herriko fitxan sartuta, bertako eduki guztia bistaraziko zaizu **GAIKA** iragazteko aukerarekin:



GAI KODE POSIBLEAK:

- 1923-1931: Primo de Rivera
- 1931-1939: II Errepublika
- Gerraren hasiera

<https://ahotsak.eus/>



⇒ Gerra aurea (720)
⇒ XIX. Mendea (34)
⇒ 1914-1923. Monarkia (21)
⇒ 1923-1931: Primo de Rivera (60)
⇒ 1931-1936. II. Errepublika (526)
⇒ I. Mundu Gerra (1914-1918) (9)
⇒ Gerra zibila (1936-1939) (7.369)
⇒ Gerraren hasiera (396)
⇒ Errepresioa (1.847)


- *Zu zeu elkarrizketatzaile.* Ikasleak kazetari bihurtuko dira, herriko historiaren biltzaile. Gerra aurreko garaia eta gerra hasiera nolakoak izan ziren jakiteko, etxekoei edo inguruko pertsona helduei elkarrizketak egitea proposatzen da. Gerra zuzenean bizi izan zuten pertsonak aurkitzea ia ezinezkoa izango da gaur egun, baina haien seme-alabek eta ilobek (ikasleen aitona-amonek eta gurasoek) entzungo zituzten makina bat kontu. Hainbat gai landu daitezke:

GALDERA POSIBLEAK, ADIBIDERAKO:

- Etxean hitz egiten al zen gerra-garaiaz?
- Zer esaten zen? Edo, hitz egiten ez bazen, zergatik?
- Etxea edo baserria utzi beharrik izan al zuten? Nora joan ziren?
- Etxeko mutilak eraman al zituzten gerran borrokatzera? Nora?
- Bonbardaketarik egon al zen herrian? Ba al dakite zerbait egun haietaz?
- Non ezkutatzen ziren hegazkinek bonbak botatzen zituztenean?
- Abisurik egoten al zen?



Jarraitu daitezkeen pausoak:



Esan bezala, elkarrizketa bideoan grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Ondoren, hainbat lanketa (zailtasun maila desberdinekoak) egin daitezke grabazio horrekin:

1-Aurkezpen bat egin gelan, jasotakoa erakusteko. Elkarrizketaren nondik norakoak azaldu, elkarrizketatuak kontatutako gauza interesgarri batzuk aipatu eta grabazioaren zatitxo bat erakutsi.

2-Bideo-erreportaje labur bat prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi eta adibideak eman). Gelakideei erakutsi, azalpenak emanez. Sarean ere zabaldu daiteke.

Ondo legoke ondoren grabazioak [Ahotsak.eus](#)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).



Irudian, Donostiako San Ignazio ikastetxeko bi ikasle, elkarriketatuekin. Gorka Lekarozek utzitako argazkia.

4. Ekoizpena partekatzea. Ahozko aurkezpena edo saioa egindo dute ikasleek.

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, espazio itxietarako unean uneko osasun-neurri guztiak errespetatuta. Espazioa antolatzeke orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeke aukera bera dutela eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo ziurtatuko da. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzeko.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek euren esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotu dezakegu: mahaiak eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrean eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili)... Kontuan izan behar dugu transmisioa dela helburua eta horretarako giro aproposa sortzea garrantzitsua dela, testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dira, etxean bezala.



proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.

Ikasleek euren kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko, egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean oinarritutako

Komeni denean, areto nagusia, liburutegia edo kanpoko eremuren bat ere erabil daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, antzezlanak edo jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).

Taldekatzeak

Ikasleek binaka edo talde txikietan lan egitea bultzatuko da bakarkako lana baino gehiago. Taldeak sortzeko garaian, ikasleen gustuak eta gaitasunak kontuan hartuko dira, eroso lan egin dezaketen. Ahal dela, ikasleek erabakiko dute norekin lan egin nahi duten. Ikasleren bat edo batzuk baztertuta geratzen direla ikusiz gero, taldekatzea beste era batera egingo da. Baztertuta sentitzen diren ikasleei entzungo zaie, horretarako.

Talde bakoitzak bere espazioa izatea ahalbidetuko da, posible den heinean: elkar entzuteko eta gustura lan egiteko aukera izan dezaten. Arreta berezia jarriko zaio taldeen funtzionatzeko moduari, ikasleak nola moldatzen diren bikoteka eta taldean, eta ebaluazio-irizpideetan ere aintzat hartuko da. Ikasleak berak nola sentitu den azaltzea komenigarria da, egoki iritzitako aldaketak egin ahal izateko.

Taldeen funtzionamenduan ikasle guztien parte-hartzea orekatua izatea bilatuko da, ez lidergorik sortzea. Ahal dela, taldeko guztiek izango dute protagonismo bera. Horrek ez du esan nahi guztiek gauza bera egingo dutenik. Bakoitzaren gaitasunak eta gustuak errespetatuko eta baloratuko dira. Hori bai, ahozkoa lantzea denez ikasmaterial honen helburuetako bat, taldekide guztiek ahozko jarduna erabiltzea bultzatuko da, modu formalean zein informalean.

Talde-lana bultzatuko da: lanak elkarrekin egitea. Eraitza bezainbat edo gehiago baloratuko da talde-lanerako prestutasuna: ikasleek elkar entzutea, iritziak partekatzea eta erabakiak guztien artean hartzea.

DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zein jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero (azken ekoizpen bat aukeratuta), lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

1. *saioa*. Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikusi.
2. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere hasi gaitzke jarduerekin)
3. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk
4. *saioa*. Ikerketa, informazio bilketa edo lanketa, ekoizpena gauzatzeko (kasuan kasu, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke)
5. *saioa*. Ekoizpena partekatu eta grabatu
6. *saioa*. Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Internetarako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek euren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.
- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak, etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu. Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

MATERIALAREN EGILEAK

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkarteak sortu du, www.ahotsak.eus eta proiektuak oinarri hartuta.

- **ITZIAR SAPSOOTHAM AREVALO.** Edukien diseinuaz eta garapenaz arduratuko da. Geografian lizentziatua eta Lurralde Antolamendu eta Geografiarako Informazio Sistemetan espezializatua. Ingurumenaren arloan eta liburutegi publikoetan aritu da lanean, ikerketa historiko-geografikoak ere lantzen. Ahotsak.eus proiektuan Eibarko Egoibarra Batzordeko proiektuen eta [Gerrako Ahotsak](#) proiektuko gerrako ibilbideen arduraduna da 2020. urtetik.
- **AINTZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetan aholkulari pedagogikoaren ardura izango du. Edukien transkripzioekin eta proposamen pedagogikoekin lagunduko du. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da eta Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren sortzaileetako bat. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **HAIZEA ODRÍA ESÑAL.** Bideoen edizioaz arduratuko da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikus-entzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamerari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile moduan dihardu 2009tik. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **IZASKUN GASTON BALERDI.** Beharrezko izapide administratiboak egiteaz gainera, gida didaktikoaren diseinu eta maketazioaz arduratzen da. Arte Ederretan Lizentziatua da. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) maketatzen eta diseinatzen jardun du aurreko urteetan ere.

BIBLIOGRAFIA

- ALDECOA, JOSEFINA (2015). *Historia de una maestra*. Bartzelona: Debolsillo
- ALIA, Francisco (2023). *La Dictadura de Primo de Rivera (1923-1930) Paradojas y contradicciones del nuevo régimen*. Madril: Catarata.
- ASKOREN ARTEAN (2013). *Ikasleak hiltun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurilaritza. Gasteiz
- BARQUIN, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.
- BLACKSMITH, Mike. *Arte y propaganda política en la Guerra Civil Española*. Sociedad Benéfica de Historiadores Aficionados y Creadores.
<http://www.arte.sbhac.net/Carteles/ArteYPro.htm>
- CABELLO, Diana. (2022). “La mujer antes y durante la II República Española” in *El inconformista digital*. <https://www.elinconformistadigital.com/2022/08/03/la-mujer-antes-y-durante-la-ii-republica-espanola-por-diana-cabello/>
- CANES GARRIDO, Francisco. (1993) “Las misiones pedagógicas: educación y tiempo libre en la Segunda República” in *Revista Complutense de Educación*, Vol. 4. (1): 147-168, Madril: Universidad Complutense.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=150110>
- De PIETRO, Jean-François, DOLZ, Joaquim (1997). “L’oral comme texte: comment construire un objet enseignable?” in *Education et recherches*. 1/1997: 335-339. Friburgo: Editions Universitaires Fribourg Suisse. <https://www.e-periodica.ch/digbib/view?pid=szb-001:1997:19::457#4>
- Diputatuen kongresua. (argitaratu gabe). *Dictadura de Primo de Rivera. Asamblea Nacional 1923-1930*. <https://www.congreso.es/eu/cem/primoriv>
- Diputatuen kongresua. (argitaratu gabe). *II República Española 1931-1939*. <https://www.congreso.es/eu/cem/iirepesp>
- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard (1998). *Pour un enseignement de l’oral*. Paris: ESF.

- DOLZ, Joaquim, NOVERRAZ, Michèle, SCHNEUWLY, Bernard. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3^e/4^e). Brusela: De Boeck.
- DOLZ, Joaquim, VILA, Montserrat (1997). "L'oral formal" in *Articles* 12. Bartzelona: Grao.
- ECO REPUBLICANO. (2020). *Programa electoral del Frente Popular de 1936*.
<https://www.ecorepublicano.es/2020/02/programa-electoral-del-frente-popular.html>
- EGOIBARRA BATZORDEA. (1931). *II. Errepublikaren aldarrikapeneko akta*.
<https://egoibarra.eus/eu/eibar/eibarko-historia/ii-errepublikaren-aldarrikapeneko-akta-1931-04-14>
- "Errepublikaren Behin-behineko Gobernua" (1931) in GACETA DE MADRID. 122: 477. <https://www.boe.es/gazeta/dias/1931/05/02/pdfs/GMD-1931-122.pdf>
- ERRIONDO L., Bilbao B., GARAGORRI X., IDIAZABAL I., IZTUETA P (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak. Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar*. Gasteiz
- ESNAOLA, Imanol (2000). "Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa" in *HIK-HASI*. 49. Donostia: HIK HASI.
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezaroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa>
- ESNAOLA, Imanol. (2000). "Gazteak eta erregistro kolokiala" in *HIK-HASI*, 49. Donostia: HIK HASI. <http://www.hikhasi.eus/artikuluak/542>
- ESPAINIAKO GOBERNUA, Centro Documental de la Memoria Histórica. *Kiosco digital de la Guerra Civil española*.
<https://www.cultura.gob.es/en/cultura/areas/archivos/mc/archivos/cdmh/biblioteca/guiasdelectura/kioscoguerracivil.html>
- ESPAINIAKO ERREPUBLIKAKO GOBERNUA. (1931). *Espainiako Errepublikako Konstituzioa, 1931ko abenduaren 9a*. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1931-14109>
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

- EUSKO JAURLARITZA (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. Ale gehigarria. 218. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (2023). 77/2023 DEKRETUA, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (1993). *Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua*. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.02.recursos.basicos.mujeres.eus.pdf.pdf
- FERNÁNDEZ SORIA, José María. (2007). *Iniciativas de alfabetización en la España republicana durante la Guerra Civil. Transatlántica de educación, 2*.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2346303>
- FETE-UGT. (argitaratu gabe). *La educación en la II República*.
<https://laescueladelarepublica.es/2016/02/02/unidad-didactica-secundaria/>
- FETE-UGT, FECOO, & STES-i. (2011). *Las maestras de la república*.
<https://www.inmujeres.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/Documentos/DE0430.pdf>
- FOUASSIER, Maite (2017). *Aniztasuna ikasgeletan: hezkuntzaren alorreko ahotsak*. In J. A. Oleaga. (Arg.), *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak* (143-268 orr.). Bilbo, EHU
- Fundación 14 de Abril. (2024). Unidad Didáctica de la II República Española.
https://14deabril.com/files/2024/05/unidad_didactica_republica.pdf
- GARCIA-AZKOAGA, I.M. (2015). *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
- GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2015). “Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat” in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 96: 011-028. Andoain: Sei.
https://www.academia.edu/20802637/Ahozko_euskara_ikerketarako_unibertso_bat
- GALLEGU, Rafael. (2019). “La expulsión de los jesuitas entre 1769 y 1770 a partir de las correspondencias de José Nicolás de Azara, Tomás Azpuru y el barón de Saint-Odile” in *Argensola: Revista de Ciencias Sociales del Instituto de Estudios*

Altoaragoneses, 129: 127-145. Logroño: Universidad de La Rioja.

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7532652>

- GARCÍA, ANTONIO. (2022). *El debate en las cortes sobre la expulsión de los jesuitas. “Crónica de una muerte anunciada”*. Algargos, Historia de España.
<https://algargoshistoriaspain.blogspot.com/2022/04/el-debate-en-las-cortes-sobre-la.html>
- GONZÁLEZ, Ignacio. (2022). *La guerra del Rif: El Vietnam español*. Fronterad Revista Digital. <https://www.fronterad.com/la-guerra-del-rif-el-vietnam-espanol/>
- GONZÁLEZ, Francisco Javier. (2013). “La guerra del Rif, la guerra olvidada” in *El Hinojal, Revista de Estudios del MUVI*. 0: 77-88
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5694064>
- HEZIBERRI 2020: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- IDIAZABAL, Itziar. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- IDIAZABAL, Itziar, GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2007) *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza>
- KAGAN, Spencer (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*. Kalifornia: Kagan Publishing.
- LLEDO, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Gasteiz: Emakunde.
- LLORENTE, Luis Ignacio, PAVLOVIC, Tatjana. (2000). *Proyecto de lectura guiada sobre Historia de una maestra*. Dialnet.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=608517>
- MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA. (Argitaratu gabe). Las mujeres durante la II República. <https://www.museoreinasofia.es/coleccion/proyectos-investigacion/mujeres-guerra-civil-espanola/mujer-ii-republica>
- PUELLES, Manuel. (1999). *Educación e ideología en la España contemporánea*. Madrid: Tecnos

- RAWLS, John, GABIKAGOJEASKOA, Alberto (2008). Justiziaren teoria bat. Pentsamenduaren klasikoak. Bilbo: Klasikoak.
<http://eimakatalogoa.eus/vufind/Record/16172>
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaz-eredua egiteko gida*. I tomoa. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak*. II tomoa. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.02.instrumentos.elaboracion.proyecto.educativo.eus.pdf
- RINCÓN, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazioa era guztiak ezabatze konbentzioa eta gomendioak*. Gasteiz: Emakunde
- ROJAS, CARMEN. (2004). *Notas para el estudio de La lengua de las mariposas en la clase de lengua y cultura españolas*. Dialnet.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=826499>
- SÁNCHEZ, Carmen María. (2003). “La figura de la maestra rural en la Segunda República” in *Revista de Antropología Experimental*. 10: 119-128. Universidad de Jaén.
<https://revistaselectronicas.ujaen.es/index.php/rae/article/download/1972/1720/6756>
- SOZIOLOGIA KLUSTERRA (2013). Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilerari buruzko datuak (LH 4 eta DBH 2).
<http://www.soziolinguistika.org/es/arrue/2011txostena>



Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren Onespena du
2025/11/24